




Despopulatzearen aurkako borroka Nafarroan: Foru Administrazioak hartutako neurriak



2024ko maiatza



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



LABURPENA/DESPOPULATZEAREN AURKAKO BORROKA NAFARROAN: FORU ADMINISTRAZIOAK HARTUTAKO NEURRIAK



Azken 30 urtean, Nafarroako populazioak **%27ko igoera** izan du; alabaina, aldi horretan, **udalerrien erdiak baino gehiagok** biztanleak galdu dituzte. Nafarroak **664.117** biztanle dauzka.

272


udalerrri
Nafarroan

152

udalerrrik biztanleak galdu
dituzte

**Despopulazte-arriskuan dauden
udalerrien kopurua: 166**

**Despopulazte-arriskuan dauden
eskualdeak: Pirinioak, Pirinioaurrea,
Zangozeria eta Estellerria**



- Despopulazte-arrisku muturrekoa
- Despopulazte-arrisku bizia
- Despopulazte-arrisku garrantzitsua
- Gainbehera bizia
- Gainbehera moderatua

→ Zergatiak:

- Lurraldeari dagozkionak
- Etxebizitzarik eza
- Garraio-zailtasunak, komunikazio txarrak
- Arrakala digitala
- Enpresa-ehundurarik eza eta enplegurako zailtasunak
- Zerbitzu-defizita
- Laguntzarik eta babes instituzionalik eza

✓ Gomendioak

- Despopulaztearen aurkako foru lege bat onestea
- Baliabidez hornitzea Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza
- Despopulaztearen aurka borrokatzeko harturiko neurriak ebaluatzea





Aurkibidea

I. SARRERA	3
II. DESPOPULATZEA.....	4
II.1 Despopulatzea Espainian.....	5
II.3 Nafarroako despopulatzea	8
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK	16
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	19
IV.1 NFKAko gobernantza-sistema	19
IV.2 Ekialdeko Pirinioen despopulatzearen aurkako neurriak	21
IV.3 Lurralde Kohesiorako Departamentuaren neurriak	25
IV.4 Despopulatzearen aurkako beste neurri batzuk.....	26
IV.5. Gomendioak	28
V. ERANTZUKIZUNA	30
1. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK	31
1.1 NFKAko gobernantza-sistema	31
1.2 Ekialdeko Pirinioetako despopulatzearen aurkako neurriak.....	37
1.3 Lurralde Kohesiorako Departamentuaren neurriak	47
1.4 Despopulatzearen aurkako beste neurri batzuk	53
1. eranskina.....	59
Nafarroako banda zabalari buruzko adierazleak, 2016-2020.....	59
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	60
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	





I. Sarrera

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, erakunde honek 2023rako bere fiskalizazio-programan jaso zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA) despopulatzearen aurka harturiko neurriei buruzko txosten bat egitea.

Landa-lana auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen elkarlanarekin. Tuterako Valle del Ebro BHI-Bigarren Hezkuntzako Institutua ere laguntzaile aritu da.

Lan honen emaitzen berri eman zitzaizen Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Lurralde Kohesiorako kontseilari ohiari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari (Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaiako kontseilari ohi bezala), Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari ohiari, egoki jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikulua xedatzen duenari jarraituz.

Ezarritako epea iraganik, Lurralde Kohesiorako kontseilariak alegazioak aurkeztu ditu, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu honako hauetako langileei: Lurralde Kohesiorako Departamentukoei, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentukoei eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentukoei. Halaber, NASUVINSA sozietate publikoari, Valle Del Ebro BHI-ari, Allo, Gazteluberri eta Garraldako udalei eta Aezkoa Ibarreko Komunitateari.





II. Despopulatzea

Despopulatzea fenomeno demografiko eta lurralde-mailakoa da, zeina gauzaten baita, hazkunde begetatibo negatibo eta/edo migrazio-saldo negatiboaren ondorioz, lurralde bateko biztanleen gutxitzean. Gehienbat landa-eskualdeak ukitzen ditu.

Oro har, despopulatze-prozesuak gertatu dira landa-eskualdeetatik izandako migrazio-tasa altuen ondorioz; hedatze-bidean zeuden hiri-eremuetara migratzen zen, horiek eskaintzen zituzten lan-aukera ugariagoengatik eta zerbitzu hobeenengatik. Fenomeno horri XX. mendearen bigarren erdiaren lehenbiziko hamarkadetan "nekazari-exodo" deitu zitzaion.

Despopulatzeak eragin negatiboak ekartzen dizkio ukituriko landa-eremuen iraute-ahalmenari lurralde, gizarte, ekonomia, ingurumen eta kulturaren ikuspegietatik, besteak beste.

Gainera, despopulatzeak areagotu egiten ditu biztanleriaren zahartzea eta jaiotza-tasaren beherakada; eta problema horiek, aldi berean, biztanle-galera berrelikatzen dute.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 174. artikulua ezartzen du ezen, Batasun osoa modu harmoniatsuan gara dadin sustatze aldera, arreta bereziz aintzat hartuko direla desabantaila natural edo demografiko larri eta iraunkorrak pairatzen dituzten erregioak, hala nola populazio-dentsitate eskasa dutenak.

FEDER-Eskualde Garapeneko Europako Funttsaren 2021etik 2027ra bitarteko eperako Erregelamenduak despopulatzearen arazo demografikoari heltzen dio populazio-dentsitatearen eta biztanle-galeraren ikuspegitik. Esaten du estatu ki-deek arreta bereziz behatu beharko dietela populazio urriko probintzia, udalerrri edo udal-elkarteen zailtasun berekiei; hots, kilometro karratuko 12,5 biztanle edo gutxiagoko populazio-dentsitatea dutenei edo 2007tik 2017rako epean gutxienez ere urtean populazioaren ehunetik bat, batez beste, galdu dutenei.

Despopulatzearen arazoa dela-eta antolatu diren azterlan, analisi eta jardunaldi ugarietatik abiatuz, eta Allo, Gazteluberri, Garralda eta Aezkoa Ibarreko Komunitateko udaletan izan ditugun elkarrizketak ere aintzat harturik, besteak beste honako hauek aipa ditzakegu despopulatzearen arrazoi nagusi gisa:





II.1 Despopulatzea Espainian

Espainian, despopulatzea gauzatu da hazkunde demografikoko testuinguru orokor batean. 2022ko urtarrilaren 1ean, Espainiaren populazioa 47,43 milioi biztanlekoa zen; hots, 1992ko populazioa baino ehuneko 21,5 gehiagokoa. Azken 20 urteotan, Espainiako udalerrien ehuneko 62k populazioa galdu dute.

Estatu mailan, honako organo hauek eratu ziren 2020an erronka demografikoari aurre egiteko politikak taxutzeko: Erronka Demografikorako Gobernuaren Batzorde Delegatua, Erronka Demografikoaren Konferentzia Sektoriala, autonomia-erkidegoen eta Espainiako Gobernuaren arteko lankidetzeta-organo gisa, eta Erronka Demografikorako Idazkaritza Nagusia.

Despopulazioaren erronka demografikoari aurre egite aldera Espainian onetsitako tresnak eta neurriak honako hauek izan dira, besteak beste:

Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (EUPF) Espainiaren despopulatzearen aurka borrokatzeko dituen neurrien zerrenda

EUPFren Despopulatze eta Erronka Demografikoaren Batzordeak "Espainian despopulatzearen aurka borrokatzeko neurrien zerrenda" deritzon dokumentua prestatu zuen 2017ko apirilean.

Dokumentu horretan adierazten da despopulatzearen aurkako borrokan egitako inbertsioa ulertu behar dela herritarrek aukera-berdintasunerako eta beren "lur" propiorako dituzten eskubideen ikuspegitik.

Despopulazioaren problemari era dimentsioaniztunean aurre egitea proposatzen du, eta problema hori administrazio publikoen agenda politikoan sartzea.





Proposaturiko neurriak honako zazpi arlo hauetan taldekatzen dira:

1. Neurri instituzionala, finantzaketa eta lurralde-eredua
2. Ekonomia eta enplegua
3. Zerbitzu publikoak
4. Azpiegiturak, komunikazioak eta garraioak
5. Etxebizitza
6. Kultura, identitatea eta komunikazioa
7. Pizgarri demografikoak

Erronka Demografikorako Estrategia Nazionala (EDEN)

2019ko martxoaren 29an, Ministroen Kontseiluak EDENen gidalerro orokorrrak onetsi zituen. Gidalerro horiek osatzen dute hiru fenomeno demografikotatik (despopulazioa, zahartzea eta biztanleria mugikorra) eratorritako problemei heltzeko jarraibide nazionala.

EDENean honako zazpi helburu transbertsal hauek ezartzen dira:

1. Lurralde-konektibitatea
2. Oinarrizko zerbitzuak biztanleria guztiari ematea
3. Lege, plan eta inbertsio-programen prestaketara demografiaren inpaktua eta ikuspegia biltzea.
4. Udalerri txikientzako arau- eta administrazio-simplifikazioa
5. Arrisku demografikoek gehien astindutako lurraldeen irudi eta entzutearen balioa nabarmentzea
6. Lankidetzaren publiko-privatua areagotzea
7. EDENeko ekintza-ildoak garapen jasangarrirako helburuen eta 2030 Agendaren betetzearekin lerrokatzea

EDENek ministerioentzako neurriak ezartzen ditu, helburu transbertsalen lorpenerako ezarritako ekintza-ildoak dagokienez

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP)

Espainiaren SEEPa, Batzordeak proposaturik Kontseilu Europarrak 2021eko uztailaren 13an onetsia, "Next Generation EU" funtsetarako sarbidea ezarri eta bideratzeko tresna da. Funtse horien zenbatekoa 750.000 milioikoa da estatu ki-deen multzoarentzat. Espainiak, 2021-2026 epean, 140.000 milioiraino jaso





ahalko ditu (69.528 milioi, transferentzia ez-itzulgarritan; eta, gainerakoa, mailagutan).

Plana honako lau ardatz transbertsal hauetan oinarritzen da, zeinak hamar akuilu-politikatan egituratzen baitira:

- I. Trantsizio ekologikoa
- II. Eraldaketa digitala
- III. Lurralde- eta gizarte-kohesioa
- IV. Genero-berdintasuna

Hirugarren ardatzak barne hartzen ditu erronka demografikoari heltzera bera-riaz bideratutako neurriak. "I. Hiri- eta landa-agenda, despopulatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena" deritzon akuilu-politikak 14.407 milioiko zuzkidura dauka, eta despopulatzearen aurkako borrokarekin zerikusia duten inbertsio hauek barne hartzen ditu:

- Erronka demografikoko udalerrietako eraikinen energia-birgaikuntzarako programa.

- Oneratzeko eta erronka demografikoko programa, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta herriguneetan eraikinen energia-efizientziarako, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumorako eta mugikortasun elektrikoaren hedapenerako dauden proiektu publiko eta pribatuentzakoak.

Gainera, planak beste akuilu-politika batzuetan tankeratzen ditu erronka demografikoari heltzeko neurriak; adibidez, banda zabal ultralasterra nagusiki landa-izaerakoak diren eremuetara eramatea, 5G sareak hedatzea, edo gainbehera demografikoko eskualdeetan prestakuntza digitala indartzera bideraturiko inklu-sio digitaleko ekintzak.

Halaber aurreikusten da zerbitzu publikoak landa-ingurunean indartzea, Lan-bide Heziketa eramatea despopulatze-arriskuan dauden gunetara, defizit demo-grafikoko eskualdeetan natur eta kultur ondarea zaindu eta leheneratzeko urra-tsak egitea, baso-kudeaketa jasangarriari bultzada ematea eta Zuzentasunezko Trantsizio Estrategia bat ezartzea, energia-trantsizioak ukituriko lurraldeetan en-plegua eta jarduera sustatzeko.





Suspertze Plana. Erronka demografikoari heltzeko 130 neurri

Erronka Demografikorako Gobernuaren Batzorde Delegatuak 2021ean 130 neurridun plan bat onetsi zuen 2021-2023 eperako. Neurri horiek SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatzen dira hein handi batean. Dokumentuak dioenez, nazio-lurraldearen ehuneko 80 baino gehixeago landa-eremua da, zeinean populazioaren ehuneko 20 bizi baita. Neurriak honako hamar jardun-ildo hauen inguruan antolatzen dira:

- 1. ardatza. Trantsizio ekologikoari bultzada ematea
- 2. ardatza. Trantsizio digitala eta erabateko lurralde-konektibitatea
- 3. ardatza. Lurraldeko garapena eta berrikuntza
- 4. ardatza. Turismo jasangarriari bultzada ematea
- 5. ardatza. Emakumeen eta gazteen eskubide- eta aukera-berdintasuna
- 6. ardatza. Ekintzaitzaren eta enpresa-jardueraren sustapena
- 7. ardatza. Zerbitzu publikoak indartzea eta deszentralizazioa areagotzea
- 8. ardatza. Gizarte-ongizatea eta zainketa-lanen ekonomia
- 9. ardatza. Kulturaren sustapena
- 10. ardatza. Erronka demografikoari heltzeko arau- eta erakunde-erreformak



II.3 Nafarroako despopulatzea

2022ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako populazioa 664.117 biztanlekoa zen. 1992-2022. epean ehuneko 27 egin du gora.

Aipatu epean, behera egin du zerotik 64 urterako populazioak, eta hazi egin da 64 urte baino gehiagoko populazioa, honako datuek eta grafikoek azaltzen duten bezala:

Urtea	Biztanleriaren %		
	0-14 urte	15-64 urte	>64 urte
1992	16,06	68,02	15,92
2022	14,62	64,91	20,47







Honako koadro honetan agertzen dira 1992-2022 epean biztanleak galdu edo irabazi dituzten udalerriak, populazio-tarteka:

Herria	Udalerrien kopurua			Udalerrien %			
	Biztanleak galdu dituztenak	Biztanleak irabazi dituztenak	Biztanle-kopuruari helitzen diotenak	Guztira	Udalerrien guztizko kopuruarekiko	Behera egin dute	Gora egin dute
1-100	43	2		45	17	96	4
101-500	66	41		107	39	62	38
501-1000	22	13	1	36	13	61	36
1001-2500	9	14		23	8	39	61
2501-5000	11	29		40	15	28	73
5001-10000	1	8		9	3	11	89
10001-50000		11		11	4		100
50001-250000		1		1			
Guztira	152	119	1	272			

Nafarroak guztira dituen 272 udalerrietatik, 152k biztanleak galdu dituzte azken 30 urtean; hots, kopuru osoaren ehuneko 56k. Nafarroako udalerrri-kopuru osoaren ehuneko 17k 100 biztanle baino gutxiago dauzka; eta, horietatik, ehuneko 96k biztanleria galdu zuten.

Gainera, 2023ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako udalerrien ehuneko 69k 1.000 biztanle baino gutxiago zeuzkaten, eta Nafarroako guztizko populazioaren ehuneko zortzi hartzen zuten.

1.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriek populazio-galerako portzentaje nabarmen handiagoak dituzte populazio-gorakadakoak baino. Populazio-tarte zenbat eta baxuagokoak izan, orduan eta gehiago dira biztanleak galtzen dituzten udalerriak.

2.500 biztanletik aurrera, udalerrien ehuneko 4 baizik ez da biztanlez jaisten; eta 5.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrietan, bat baizik ez da biztanlez jaitsi.

Biztanlez igo ziren udalerrien ehuneko 17k 5.000 biztanle baino gehiago zeuzkaten.

Horrenbestez, 1999-2022 epean, ehuneko 27ko guztizko populazio-gorakada biztanle-jaitsierako testuinguru batean gertatu da Nafarroako udalerrien ehuneko 56n. Horiek guztiak, bat izan ezik (Baztan), 5.000 biztanle baino gutxiagokoak. Biztanlez igo diren udalerriak gehienbat Iruñerrian daude kontzentratuta. Azken 30 urteotan gertatu den populazio-gorakadak populazioaren lurralde-banaketa aldarazi du, udalerrri txikietatik handietarantz.





Despopulatzearriskuan dauden udalerrien mapa

2021ean, Lurralde Kohesiorako Departamentuak Nafarroan despopulatzearriskuan dauden eskualdeen eta udalerrien mapa bat egin zuen, 1989-2019 epeko egoera demografikoa aintzat hartuz. Epe horretan, Nafarroako populazioak gora egin zuen 523.977 biztanletik 654.214ra; hots, ehuneko 27.


Azterlan horren arabera, 174 udalerrik, Nafarroako guztien ehuneko 64k, despopulatzearriskua zeukaten; batez ere, Piriniokoek, Pirinioaurrekoek, Zangozerrikoek, Estellerrikoek eta Nafarroaren Ipar-mendebaldeko udalerririk batzuek. Arrisku-mota bakoitzean udalerririk kopuruak hauek dira:

Mota	Deskribapena	Biztanle-dentsitatea	Udalerririkopurua
1	Muturreko arriskua	≤ 8 bizt./km ²	76
2	Arrisku bizia	8- 12,5 bizt./km ²	31
3	Arrisku garrantzitsua	12,5-25 bizt./km ² eta biztanle-beherakada 1989-2019 epean	40
4	Gainbehera bizia	≥ 25 bizt./km ² Ehuneko 15 edo gehiagoko biztanle-beherakada 1989tik 2019ra bitartean	9
5	Gainbehera moderatua	≥ 25 bizt./km ² Ehuneko 15 baino gutxiagoko biztanle-beherakada 1989tik 2019ra bitartean	18
Udalerririk, guztira			174





Udalerrri horien kokaleku geografikoa honako mapan erakusten da:



1989-2019 epeari buruzko azterlan hori 2022raino eguneratu dugu, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren metodologiari jarraituz, eta hona hemen emaitzak:

Mota	Deskribapena	Udalerrri-kopurua	
		1989-2019	1992-2022
1	Muturreko arriskua	76	77
2	Arrisku bizia	31	29
3	Arrisku garrantzitsua	40	37
4	Gainbehera bizia	9	6
5	Gainbehera moderatua	17	17
Udalerrriak, guztira		173*	166

*Azterlanean sarturiko Muruzabalgo udalerrriak ez zeukan despopulatze-arriskurik.





2022an 166 udalerrri zeuden despopulatze-arriskuan: 2019an baino zazpi gutxiago. Emaizen banakako azterketatik nabarmentzen dugu 2022an Ultzama eta Igantziko udalerrriak gehitu zirela, arrisku garrantzitsuarekin eta gainbehera moderatuan, hurrenez hurren. Halaber, 2019an despopulatze-arriskuan zeuden berderatzi udalerrri ez daude, 2022an, arrisku horretan (Aberin, Arakil, Arguedas, Artaxoa, Mirafuentes, Oteitza, Tebas-Muru Artederreta, Deierrri eta Esa).

Etxebizitzari dagokionez, honako koadroak erakusten du zenbat udalerrri dauden etxebizitza nagusiek guztizko etxebizitza-kopuruaren gainean egiten duten portzentajearen tarte bakoitzean

Etxebizitza nagusiak	Udalerrri-kopurua	Udalerrrien guztizko kopuruaren gaineko %
<= % 35	14	5
> % 35 eta <= % 50	35	13
> % 50 eta <= % 65	87	32
> % 65	136	50
Guztira	272	

Gurutzatu egin ditugu 2022an despopulatze-arriskuan dauden udalerriei buruzko datuak eta udalerrri bakoitzean dauden etxebizitza nagusiei eta etxebizitza huts edo noizbehinka erabiliei buruzko datuak. Analisiak erakusten du ezen guztizko etxebizitza-kopuruaren ehuneko 78 etxebizitza nagusizat jotzen dela. Ehuneko 22 hutsik daude edo noizbehinka erabiliak dira. Udalerrri guztietatik, 231k batez bestekoa baino baxuagoa zeukaten etxebizitza nagusiaren portzentajea. Horietatik, ehuneko 58k despopulatze-arrisku muturrekoa edo arrisku bizia zeukaten.

Udalerrrietako populazioa adin-tarteka aztertu dugu, eta ikusi dugu despopulatze-arriskua muturrekoa (1) edo bizia (2) dutenek oro har adingabe-populazio txikiagoa eta 75 urte baino gehiagoko adinekoen populazio handiagoa dutela.

39 udalerrri dira ehuneko 20 baino gehiagokoa dutenak 75 urte baino gehiagoko populazioa. Horiek guztiek despopulatze-arriskua erakusten dute. Bestalde, 65 udalerritan, haien populazioaren ehuneko 20 baino gehiagok 19 urte baino gutxiago dituzte. Ehuneko 83n ez da despopulatze-arriskurik ikusten. Datu horiek honako taula honetan zehazten dira:

Populazioa	Udalerrri-kopurua	Despopulatze-arriskua
% 20 baino gehiago, 75 urte baino gehiagokoak	32	1
	7	2
% 20 baino gehiago, 19 urte baino gutxiagokoak	54	Arriskurik gabe
	3	1
	1	2
	5	3
	2	5






Lurralde-garapeneko indize sintetikoa

Tuterako Valle del Ebro BHIk Kontuen Ganberarekin batera jardun zuen lurralde-garapeneko indize sintetikoaren (LGIS) prestaketan, dentsitate apaleko eta atzeranzko dinamika demografikoko Nafarroako udalerriak aztertuz; zehazki, Lurralde Kohesiorako Departamentuak 2021ean eginiko azterlanaren arabera despopulazte-arrisku bizia eta muturreko arriskua duten Nafarroako udalerriak.

Adierazle kuantitatibo bat da, zeina kalkulatzeko baita oinarri hartuz lurralde-garapena baldintzatzen duten faktoreen aldagai esanguratsuak.

LGISa prestatzeko, kontuan hartu dira lurralde-garapeneko faktore hauek eta horietan eragin esanguratsua duten honako aldagaiak:



Aldagaiak haztatu egiten dira, haiek taldekatuz eta gero zenbait faktoreen arabera haztatuz. Hori guztia sintetizatzen da LGISa.



Azterlanaren arabera, despopulatzeko muturreko arriskua edo arrisku bizia duten 107 udalerrietatik, honako hauek dira LGISan emaitzarik onenak eta okerre-nak dituzten hamar udalerriak, kontuan harturik ezen gehieneko balioak, 100ek, garapena handiagoa eta baldintzak hobekak direla esan nahi duela.:

Udalerria	LGIS baxuena	Populazioa	Udalerria	LGIS altuena	Populazioa
Sartze	28,277	58	Pitillas	51,285	521
Gazteluberri	28,504	16	Cáseda	50,540	946
Cabredo	28,755	78	Xabier	49,511	122
Genevilla	28,795	57	Ezkaroze	48,037	305
Galoze	28,935	92	Erro	48,023	796
Gorza	29,157	34	Izaba	47,150	410
Abaurregaina	29,260	120	Otsagabia	46,753	495
Marañón	29,306	49	Basaburua	44,754	842
Abaurrepea	29,366	31	Auritz	44,160	230
Desoio	29,577	68	Larraun	43,932	907

LGISaren arabera, despopulatzeko arriskurik handieneko bi udalerriak Sartze eta Gazteluberri dira: Lurralde Kohesiorako Departamentuak eginiko azterlanaren arabera, udalerririk horiek muturreko despopulatzeko arriskua agertzen dute.

Ikusten da ezen, oro har, LGIS altuagoa agertzen duten udalerririk populazio handiagoa dutela LGIS baxuenekoen baino.





III. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak

Fiskalizazio operatibo bat egin dugu, despopulazioaren aurkako borrokan NFKAk eginiko urratsak eta harturiko neurriak ebaluatzeko. Fiskalizazio honen helburuak honako lau galderetan zehazten dira:

1. Ezarri al da despopulatzearen aurkako politikak kudeatzeko egokia den gobernantza-sistematik?

2. Eraginkorrak eta efizienteak izan al dira Pirinioen Plan Estrategikoko neurriak, despopulatzearen aurka ezarriak?

3. Egokiak izan al dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatzearen aurka hartu dituen neurriak?

4. Despopulatzearen aurkako borrokarentzat neurri lagungarriak izan al dira Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak hartutako neurriak?

Helburu bakoitzerako, honako azpigelburu eta irizpide hauek zehaztu dira:

1. helburua. Ezarri al da despopulatzearen aurkako politikak kudeatzeko egokia den gobernantza-sistematik?

Azpigelburuak	Irizpideak
<i>Despopulatzeari buruzko araugintzazko garapenik egin al du NFKAk?</i>	<i>Onetsitako araudia</i>
<i>Despopulatzearen aurkako plangintza-tresnarik onetsi eta ezarri al da?</i>	<i>Despopulatzearen aurkako plan estrategikoa Pirinioen Plan Estrategikoa</i>
Ba al dago despopulatzearen aurkako urratsen gaineko zuzendaritzaz, koordinazioaz eta jarraipenaz ardurazten den egiturarik?	Gobernantza-egitura Eginkizunak Politika sektorialak koordinatzeko organoak





2. helburua. Eraginkorrak eta efizienteak izan al dira Ekialdeko Pirinioetako despopulatzearen aurka ezarritako neurriak?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.1 Ezarri al da gobernantza-sistema egokirik?	Gobernantza-egitura Eginkizunak Koordinazioa, elkarlana eta parte-hartzea
2.2 Pirinioen ekintza-planetik garatu diren neurriak eraginkor eta efizienteak izan al dira?	Sektore bakoitzean exekutatu diren neurriak: 1. Prestatze-adierazleak (edukia, partaidetza, bilerak, zuzemenak) 2. E-mailza-adierazleak (jarduketa-kopurua, onuradunak, balorazioa) 3. Inpaktu-adierazleak 4. Neurrien pertinentzia, askotarikotasuna, oreka eta populazio-estaldura
2.3 Aldizkako informaziorik ematen al da Pirinioen Planaren exekuzioari buruz?	Informazioa helarazteko gidalerroak jasotzen dituzten araudi, erabaki, jarraibide edo gidak Komunikazio-plana Ezagutarazpen-bitartekoak: web-orria, foroak, jardunaldiak

3. helburua. Egokiak izan al dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatzearen aurka hartu dituen neurriak?

Azpihelburua	Irizpideak
3.1 Egokiak izan al dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatzearen aurka gauzatu dituen neurriak?	Eginiko eta aplikaturiko azterlanak Hartutako neurriak eta egindako ekintzak Emandako dirulaguntzak; zenbatekoa, onuradunak, diruz lagundutako jarduera eta inpaktua Inbertsioak

4. helburua. Despopulatzearen aurkako borrokarentzat neurri lagungarriak izan al dira Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak hartutako neurriak?

Azpihelburuak	Irizpideak
Despopulatzearen aurkako borrokarentzat neurri lagungarriak izan al dira Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak hartutako neurriak?	Emandako dirulaguntzak eta inpaktua
4.2 Despopulatzearen aurkako borrokarentzat neurri lagungarriak izan al dira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak aurrera eramandakoen neurriak?	Onetsitako estrategia eta planak eta horien ezarpena Egindako inbertsioak





Irismena

Fiskalizazioaren mugarte subjektiboa NFKA da.

Mugarte objektiboa osatzen dute despopulatzeari aurre egitearren hartutako araugintzako, gobernantzako eta plangintzako neurriek eta NFKAk egindako ekintzek.

Despopulatzeari arriskuan dauden 173 udalerriei galdetegi baten bitartezko informazioa eskatu genien despopulatzeari erantzuteko lehentasunezkoak jotzen zituzten gaiei, xede horrekin 2019-2022 epean egin zituzten jardueri eta udalerrian zeuden etxebizitza hutsei buruz. 173 udalerrietatik 22 hauek baizik ez zituzten erantzun: Aberin, Anue, Areso, Arguedas, Zarrakaztelu, Ezkurra, Garrantza, Goñerri, Gesalatz, Larragoa, Lerga, Orotz-Betelu, Oteitza, Erronkari, Zare, Saldias, Jaitz, San Martin Unx, Santakara, Sartaguda, Tebas - Muru Arterreta eta Zuñiga.

Fiskalizazioaren denbora-mugarteak 2019-2023 epea barne hartzen du, ezertan galarazi gabe aurreko eta ondoko epeei buruzko egiaztapenak ere egin izana, beharrezkotzat jo direnak egitarauko helburuak betetzeko.





IV. Konklusioak eta gomendioak

Despopulatzea arazo demografiko konplexua da, zergati desberdinak dituen eta askotariko faktoreak biltzen dituen, jada identifikatuak gai horri buruz hala Estatu-mailan nola Foru Komunitatean eginiko azterlan, plan eta programa ugarietan.

Foru Komunitatean, jomugatzat harturiko lurralde-eremua zerarekin identifikatuta dago, Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatze-arriskua duten eskualde eta udalerriak irudikatzeko egin zuen maparekin. 2022an, 272 udalerri-tik 166k zeukaten despopulatze-arriskua.

Honako hauek dira egindako lanetik ateratako konklusio nagusiak:

IV.1 NFKAko gobernantza-sistema

Aztertu dugu ea kasuko araudia, plangintza estrategikoa eta NFKAn eraturiko gobernantza-egitura egokiak ote diren modu koordinatu eta transbertsanean heldu eta bultzada emateko despopulatzearen aurkako borrokari.

- Ez da despopulatzearen aurkako foru legerik onetsi, problema horri heldu eta konpontzen laguntzeko neurri ekonomiko, fiskal, administratibo eta arautzailerik ezarri duenik eta horretarako politika publikoen onspen eta ezarpenari bultzada emanen dionik.

- 2023ko apirilaren 26an onetsi zen Nafarroaren despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategia (NDABE), zeinean urrats eta proiektuak planifikatzen baitira, despopulatzearen problematikari transbertsalki eta multzoan heltzekoak.

Estrategia hori plangintza operatiboko honako bi tresna hauetan zehaztu behar da: Urte Anitzeko Plana eta Urteroko Plan Operatiboa, zeinak, ezartzen denaren kontra, 2023an ez baitziren egin.

- 2020an onetsi zen, eta egun ezarpen-fasean dago, Pirinioen Plan Estrategikoa, zeinak 130 eskaerari erantzuten baitie, askotariko urratsak eginez eta neurriak hartuz. Plan estrategikoak partaidetzazko gobernantza-eredu transbertsal bat, ekintza-plan bat eta komunikazio-plan bat barne hartzen ditu.

- 2020an eskualde despopulatuei buruzko bi azterlan egin ziren: bata, Zangozako eskualdeari eta Erdialdeari buruzkoa; eta bestea, Estellerriko Jurramendiko azpieskualdeari buruzkoa. Azterlan horietan, populazio-finkapenerako lagungarri diren ekintza-ildoak eta baliabideak ezarri ziren. Azterlan horien ezarpenik ez da egin.

- Lurralde Kohesiorako Departamentuak dauka Nafarroaren despopulazioaren aurkako estrategia kudeatzeko eskumena.





Departamentu horri atxikita, 2019an sortu ziren Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia eta Toki Informazioaren eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Estrategiaren Atala. Atal horrek, esleituta zeuzkan eginkizun guztietarako gehi despopulatzearekin zerikusia dutenentarako, langile bat besterik ez zeukan.

2023ko azaroan, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura birmoldatu egin zen, eta Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzua sortu zen; eta, horri atxikiak, Analisi eta Plangintza Estrategikorako eta Politika Publikoen Koordinaziorako Atala eta Proiektuen Kudeaketarako Atala. Zerbitzuak zortzi pertsona dauzka.

Pirinioen Plan Estrategikoaren exekuzio eta jarraipena Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari zegokion. 2023ko azaroaz geroztik, Lurralde Kohesiorako Departamentuak kudeatzen du Pirinioen Plana, plan hori despopulatzearen aurkako jardunarekin zerikusia duten neurriak izapidetzeko eskumenak esleituta dituen departamentuari dagokiolakoan.

- 2019ko azaroan eratu zen Despopulatzearen aurkako Batzordea, erronka demografikoari transbertsaltasunez aurre egin eta departamentu desberdinen proiektu eta ekimenei bultzada emateko. Batzordeburu Nafarroako Gobernuko lehendakaria da, eta batzordekide dira Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilaria, batzordeburuorde gisa, departamentuetako 14 zuzendari nagusi, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hiru ordezkari.

Batzorde horren bileren aktetan ez da agertzen ekimen transbertsal eta departamentuen artean koordinaturik tratatu eta bultzatu zenik.

- NDABEa 2023ko apirilean onetsi zen, eta honako organo hauetan oinarrituriko gobernantza-eredu berria ezartzen du:

- Despopulazioaren aurkako borrokarako Departamentuarteko Batzordea, estrategiaren koordinaziorako eta jarraipena egiteko.

- Despopulazioaren aurkako borrokarako Talde Eragilea

- Bulego Teknikoa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa.

2023ko abenduaren 31n, eratu gabe zeuden aipaturiko organo guztiak, bai eta bulego teknikoa ere.

Azken batean, onetsitakoa esku-hartze publikorako tresnak onetsi dira plangintzarako, hala nola NDABE eta Ekialdeko Pirinioen Plan Estrategikoa. Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoak despopulatzearen aurkako berariazko unitate organikoak dauzka, eta horiek, NDABEk ezartzen dituen





gobernantza-organoekin batera, egokiak dira koordinatuta eta transbertsalki bultzada eman eta heltzeko despopulatzearen aurkako borrokari, baldin behar adina langile badituzte eta NDABEn ezartzen diren organoak eratzen eta abian jartzen badira.

Alabaina, ez da despopulatzearen aurka borrokatzeko foru legerik onetsi. NDABEn ezarritako plangintza-tresna operatiboak ez dira onetsi, ez eta, horrenbestez, ezarri ere, eta halaber ez dira eratu estrategia horretan ezarritako organo eta unitateak: departamentuarterko batzordea, despopulatzearen aurkako talde eragilea eta bulego teknikoa.

IV.2 Ekialdeko Pirinioen despopulatzearen aurkako neurriak

• 2016an, Parlamentuak Pirinioen despopulatzearen problematikari heltzeko ponentzia bat abiarazi zuen. 2018ko azaroaren 8an, Parlamentuaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen ponentziaren konklusio eta gomendioen txostena. 2019ko urriaren 7an eratu zen Ekialdeko Pirinioei buruzko Ponentziaren jarraipenerako Batzorde Berezia.

Ez dugu frogatuta ikusi ponentziaren txosteneko honako gomendio hauek, gutxienez ere, bete direnik:

- Despopulatzen ari diren lurraldeei buruzko foru lege bat onestea.
- Pirinioen garapenerako muntadun den araudia aztertzea.
- Europako Parlamentura eramatea eta bertan agerian jartzea Pirinioetako arazoak, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak garraiorako, telekomunikazio-etarako eta zerbitzu publikoetarako azpiegituren sorrerarako pizgarriak eman ditzan.
- Lehiaren distortsiorik gabe barne merkatuarekin bateragarri diren laguntzak bilatzea, despopulatzea pairatzen duten eskualdeetako ekonomia faboratzeko.

• Pirinioen plan estrategikoak 32 udalerrri barne hartzen ditu, eta horiek 2019an 5.418 biztanle zeuzkaten errolatuta, 1.415 km²ko azalera batean. Horrek esan nahi du biztanleriaren dentsitatea 3,8 biztanlekoa dela km² bakoitzeko. Udalerrri gehienak muturreko despopulaziorako arriskukotzat daude kalifikatuta.





• Pirinioen Plan Estrategikoa exekutzeko taxuturiko gobernantza-eredua entitate desberdinen arteko kobernanzan oinarritzen da, non ordezkatura baitaude maila politikoa, sozioekonomikoa eta teknikoa, organo eta eragile sozial eta ekonomikoen nahiz eraturiko lantaldeen bitartez.

Pirinioetako despopulatzearen arazoari heltzeko eraturiko gobernantza-eredua honako organo eta entitate hauek osatzen dute:


- Pirinioen Mahaia: Planaren esparru geografikoko toki-entitateen ordezkariak osatua. Urteko jarduketa-plana onesten du.


- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako Departamentua: haren ardurapean egon zen Pirinioen Plan Estrategikoaren exekuzio eta jarraipena, lankide izan zuela Nasuvinsa sozietate publikoko eta Cederna Garalur partzuergoko teknikariak osaturiko lurralde-lantaldea.

- Pirinioetako Batzarra eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentziako jarraipen-batzordea dira ordezkariak politikoko organoak.


- Lan-unitateak eratu dira, hala nola lau batzorde sektorial, lurralde-lantalde bat, elkarlanerako eragileak eta herritarren foroak.

Eraturiko organo eta entitateen egitura grafikoa eta haien arteko harremana honakoa da, Pirinioen Planean ezartzen denaren arabera:





- Pirinioen Ekintza-planak 130 eskaera jasotzen ditu, honako lau arloetakoak:



130 eskaeretatik, zazpi transbertsalak dira sektore guztien artean, eta berdintasunaren eta euskararen sustapena dute gai.

Lau esparruetan zenbait eskaera jasotzen dira, xede dutenak baldintzak sortzea sektorearen garapena, dinamizazioa eta sustapena faboratzeko, neurriak hartuz eta urratsak eginez gobernantzari, araugintzari, garapen-plan eta -ereduak egiteari, azpiegituren, zuzkiduren eta ekipamenduen egokitzapenari, eta trebakuntza-eta prestakuntza-programei dagokienez, halako moldez non belaunaldi-berritzea eta jarduera berrien garapena lortzen baitira.

2020-2023 epean Planeko 130 eskaeretako 12 lehenetsi eta, oro har, ase ziren. Gainera, jarduketa sektorialak egin ziren lehenetsi gabeko eskaeren inguruan, zeinak, nagusiki, sektoreari buruzko azterlanak eta garapen-planak izan baitziren, bai eta prestakuntza-programak eta azpiegitura batzuen eraberritzeak ere. Alabaina, eskaera franko dago oraindik ere ase gabe, eta Parlamentuko ponentziaren txosteneko zenbait gomendiok betekizun dira.

Laburbilduz, nabarmentzekoa da lan-metodologia: Pirinioetan atzemandako premiei buruzko eskaerak bide desberdinetatik eta eragile desberdinen bitartez bildu dira, eta horiek aztertu eta lehentasun-hurrenkeran ipini dira.

Orobat azpimarratzen dugu eskaerei emandako erantzunean parte hartu dutela sektorearekin zerikusia duten eragile desberdinak, hala nola gaian eskudun diren NFKAko departamentuak, toki-entitateak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua, zeinaren arduraren baita planaren exekuzioa, eta Nasuvinsa eta Cederna Garalur, zuzenki inplikatuak, lurralde-lantaldean izan duten partaidetzaren bitartez.





Ez da planaren ebaluazio globalik egin. Pirinioen Plan Estrategikoak berak bi jarraipen- eta ebaluazio-maila definitzen ditu: planaren osotasunaren gainekoak eta proiektu zehatz bakoitzaren gainekoak. Egindako lanen ebaluazio eta jarraipena urtero egin behar da, burutze-, emaitza-, inpaktu- eta pertinentzia-adierazle bitartez.

Ez da agertzen urteroko ebaluaziorik egin denik, ez eta proiektu bakoitzerako adierazlerik ere taxutu denik. Jarduketa zehatz batzuk burutze-adierazle bidez ebaluatu dira nagusiki, hala nola jarduketaren edukia, parte-hartzea eta eginiko bilerak eta zuzemenak; emaitza-adierazleak ere agertzen dira, hala nola abiarazitako jarduketaren kopurua eta onuradunak.

Ez da ebaluatu Pirinioetan hartutako neurriak zer-nolako inpaktua ari diren izaten, ez eta ikusi ere zenbait pertinentzia-adierazle, hala nola neurrien askotaritasuna, oreka eta populazio-estaldura.

- Pirinioen Planaren betetzeari buruzko informazio- eta komunikazio-sistema bat ezarri da, bai barneranzkoa, parte hartzen duten eragileengandik informazioa jaso eta haiekin komunikatzeko, bai kanporanzkoa, biztanleriarentzako alegia, 2020ko Komunikazio Planean aurreikusten zen bezala.

Komunikazio-lanabes desberdinak abiarazi dira, hala nola Pirinioen web-orria, sare sozialetako kontuak, marka-irudi bat eta dokumentu-funts bat, besteak beste; jardunaldiak, ekitaldiak eta kanpainak ere egin dira, bai eta erreportajeak tokiko aldizkari batean argitaratu ere.

Ez da urteko komunikazio-planik egin, 2020. urtean izan ezik.

- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak 2020-2023 epean Pirinioen Planeko jarduketengatik eginiko gastuak 14,46 milioioak izan ziren, eta honako kontzeptu eta urte hauei dagozkien:

Gastuak	2020	2021	2022	2023	Guztira
Dirulaguntzak	219.951	889938	2927858	3013432	7051179
Azpiegituretako inbertsioak		18.150	3303364	2818157	6139671
Lurralde-ekipoa	172837	287887	344803	345000	1150527
Komunikazioa	15.287	29441	29568	39813	114109
Gastuak, guztira	408.075	1225416	6605593	6216402	14455486

Gastu guztietatik, 7,05 milioi toki-entitateentzako dirulaguntzak dira, gehienbat inbertsioetarakoak; 6,14 milioi, Pirinioetako azpiegituretako obrak; 1,15 milioi dira Nasuvinsa eta Cederna Garalur-en gastuetarako, Pirinioetako lurralde-lantaldea osatzen duen ente horietako langileria teknikoari ordaintzeko; eta 114.109 euro, komunikazio-gastuak.

Hitz batean, ohargarria da Pirinioen despopulatzearen aurka ekiteko ezarri den eredia, Pirinioen Plan Estrategikoaren bidezkoa, zeina kogobernantza-sistema





koordinatu eta parte-hartzaile baten bidez exekutatu izaten ari baita. Sistema horretan ordezkaritza dute maila politikoak, teknikoak eta sozioekonomikoak.

Antolatze-egitura horren bitartez eskualdearen problemak eta beharrianak identifikatu dira, zeresana duten zenbait eragileren partaidetzatik sortu diren eskaerak jaso, aztertu eta lehenetsi dira, eta neurri transbertsal desberdinak exekutatu dira, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren nahiz Pirinioetan kokatuta dagoen eta bertatik lan egin duen talde tekniko baten laguntzarekin.

Bai sistema bere osotasunean bai lurralde-lantalde teknikoa koordinatzeko bideak zehaztu dira, eta zeresana izan duten eragile guztien parte-hartzea eta ardurakidetasuna bultzatu dira. Horrez gain, lurraldeko biztanleei planaren exekuzioaren berri emateko eta haien ekarpenak jasotzeko bideak ezarri dira.

Despopulatzearen arazoari ikuspegi sektoreaniztun batetik heldu zaio.

IV.3 Lurralde Kohesiorako Departamentuaren neurriak

- Lurralde Kohesiorako Departamentuak bere zuzendaritzapean izan du Nafarroako Despopulazioaren aurkako Estrategiaren prestaketa, eta horrez gain, Nafarroan despopulatze-arriskua duten eskualdeen eta udalerrien mapa egin zuen, bai eta erronka demografikoari buruzko azterlanak ere, eta problematika horrekin zerikusia duten ekimen batzuetan parte hartu du, hala nola "Landa Eremuko Berme Mekanismoa edo Rural Proofing" delako proiektuan, zeinaren helburua baita bai legedia bai politika sektorial eta ekonomikoak landa-ikuspegi batetik berrikusteko mekanismo bat sortzea.

- Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatzearen aurkako hiru dirulaguntza-deialdi onetsi zituen, guztira 6,7 milioiko zenbatekoa zeukatenak. Kopuru horretatik, bi milioi eman zitzaizkien despopulatze-arriskurik gabeko 87 udalerriri, eta 500.000 euro ez ziren ordaindu, diru-emateari buruzko eragozpen-ohar etengarri bat tarteko.

- Orobat onetsi zuen 60.000 euroko dirulaguntza bat ematea San Martin Unxeko Udalari, despopulatzearen aurkako plan estrategiko bat egin zezan. Alabaina, dirulaguntza hori deuseztatua izan zen, Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontu-hartzaile delegatuak egindako eragozpen-ohar etengarri baten ondorioz.

- Lurralde Kohesiorako Departamentuak lau milioiko inbertsioak egin ditu despopulatze-arriskuan dauden eskualdeetako zenbait errepidetan.

- Departamentuak Landa Erasmuseko "Sustraiak" deritzon programa bat finantzatu zuen, ikasleek praktikak egiteko despopulatzea jasaten duten udalerrietan, guztira 101.084 euroekin.





- Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulatzearen aurkako proiektu aipagarri batean parte hartzen du, "landa-berrikuntzako hub-a" deritzona. Urteaniztun proiektu bat da (2022-2023), berrikuntza eta ekintzailtzako lau laborategirena. Guztizko kostua 715.035 eurokoa du, eta horietatik 578.945 euro Transizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak finantzatuak dira. Departamentuak 578.945 euro kobratu zituen 2021ean Ministerioarengandik, eta 2023ko abenduaren 31n 224.304 euro dauzka exekutatuta aurreikusitako guztizko 715.035 euroetatik.

- Transferentzia Arruntetarako Toki Ogasunen Funtsak ez du banaketa-irizpiderik jasotzen despopulatzearen aurkako borrokan eragina duten aldagaiak berariaz eta nabarmenki haztatzen dituenik, nahiz eta ohargarria den ezen, biztanleriaren arabera banaketan, 30.000 euroko kopuru finkoa esleitzen zaiela 1.000 biztanleko edo gutxiagoko populazioa duten udalerriei, eta 25.000 eurokoa 1.000 biztanle baino gehiagoko eta 2.500eko edo gutxiagoko populazioa duten udalerriei.

Halaber, banaketan aintzat hartzen da, nahiz eta ehuneko bi baino gutxiagoko porzentajean, 65 urte baino gehiagoko populazioa, udalerrri bakoitzeko zahartze-mailaren bidez haztatua, eta populazioaren sakabanaketa-indizea.

- Toki Inbertsioen Planeko erabakimen askeko funtsak populazioaren arabera banatzeko daukan irizpidearen arabera, oro har, populazioz txikiagoak diren udalerriek kopuru handiagoa jasotzen dute biztanle bakoitzeko, populazio handiagoko udalerriek baino.

Laburbilduz, azpimarratzen dugu egin egin direla despopulatzearen aurkako jarduketa horiek, baina ez dela baloratu udalerrri despopulatuetan izan duten eragina. Gure iritziz, nahiz eta 2019an Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia Lurralde Kohesiorako Departamentuari atxikita eratu zen, departamentu horrek ez du izan langilerik nahikoa esleituta zeuzkan eginkizunak betetzeko, hala nola proiektu eta ekimenen koordinazio transbertsala eta bultzada, eta erronka demografikoaren eta despopulatzearen aurkako borrokako neurri aringarrien izapidetzea. Horrela, ez du aitzindaritzarik izan, ez eta parte hartu ere, Pirinioen Plan Estrategikoaren garapenean eta ezarpenean.

IV.4 Despopulatzearen aurkako beste neurri batzuk

Aztertu dugu ea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak despopulatzearen aurkako borrokaren alorrean hartu dituzten neurriak lagungarri izan ote diren problema hori samurtzeko.





• Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategiko-
etako Departamentuak, Pirinioen Plan Estrategikoaren exekuzioan eta segimen-
duan parte hartzeaz gain, Next Generation funtsekin finantzaturiko dirulaguntzak
eman ditu, despopulatzearen erronka demografikoarekin zerikusia duten SEEP-
Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko programa hauei dagozkienak:

- Eraikinen Energia-birgaikuntzarako Programa, erronka demografikodun
udalerrietan kokaturiko eraikinentzat (PREE 5000 Programa), SEEPekoa. Hori
finantzatzeko, departamentuak Next Generation funtsetako 8,62 milioi jaso zi-
tuen. 2023ko abenduaren 31n, ez zegoen aitorturiko betebeharririk.

- Eraikin Publikoak Birgaitzeari Bultzada Emateko Programa (EPBBEP). Pro-
grama honetan sartuta dago Pirinioetan Ascunce Etxea deritzon eraikinaren bir-
gaikuntza, horri erabilera soziokulturala eta/edo komertziala ematekoa. Inbertsio
horren balio estimatua 700.067 euro da, eta Next Generation funtsetako 445.276
euroekin finantzatzen da.

2023ko abenduaren 31n, konprometituta zeuden Europar Batasuneko Next
Generation funtsetako 445.276 euroko zenbatekoa egiten duten eskubideak eta
58.496 euroko gastuak.

- Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Plana

2021ean, departamentuak Next Generation funtsetako hiru milioi jaso zituen,
eta horiekin 2,69 milioiko dirulaguntzak eman zituen toki-entitateetan sei digi-
talizazio-proiektu finantzatzeko, bai eta enpresa-ekintzazailtza bultzatzeko eta
horretan inbertitzeko programetarako ere.

• Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak
urratsak egin ditu banda zabaleko zerbitzuak Nafarroako udalerrietan ezarri eta
koordinatzeko.

Nasertic sozietate publikoari eginiko enkarguen bitartez exekutatu zituen de-
partamentuak Banda Zabalaren Plan Zuzendariko jarduketak. Aipatu sozietateak
18,85 milioi fakturatu zituen 2017-2012 epean.

Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programa (UNICO) da
Europako funtsekin SEEParen (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana)
eremuan finantzaturiko jarduketa bat, xede duena abiadura oso handiaren estal-
dura lurralde osora hedatzea eta, batez ere, landatarrenak, urrunenak edo barrei-
atuenak diren eskualdeetako populaziarengana. Nafarroan, digitalizatzen ari dira
belaunaldi berriko banda zabalik edo inolako banda zabalik ez zeukaten herriak.





Azpimarratzekoa da egoerak nabarmenki egin duela hobera 2020tik 2023ra bitarteko epean, honako taulak erakusten duen bezala:

Udalerri-kopurua	Abiadura 2020an	Abiadura 2023an	Despopulatzearriskua duten udalerrien kopurua
18	0	300	17
57	30	300	42
125	100	300	168
Guztira			

1. eranskinean erakusten da banda zabalari buruzko adierazle batzuek 2016-2021 epean izandako bilakaera.

Azken batean, bai erronka demografikoko udalerrietan etxebizitzari nahiz ekintzaitzaren sustapenari dagokienez harturiko neurriek bai banda zabalaren ezarpenak despopulatzearren zergatiei heltzen diete, eta ekarpena egiten dute etxebizitza hobetzeko, garapen ekonomikoa sustatzeko eta konektibitate eza samurtzeko, nahiz eta neurri horiek despopulatzearriskuko udalerrietan izandako eragina ez den baloratu.

IV.5. Gomendioak

- *Despopulatzearren aurkako politikak taxutu behar dira problemaren iturburu diren faktore anitzak gogoan izanez, begirada transbertsalez eta zeresana duten administrazio publikoekiko koordinazioz, eta ukituriko eragile sozial eta ekonomikoen partaidetzarekin.*

- *Despopulatzearren aurka borrokatzeko harturiko neurrien eraginkortasuna eta eragina ebaluatzea.*

Gobernantza-sistema

- *Despopulatzearren aurkako foru lege bat onestea, hari aurre egiteko neurri eraginkorrak jasoko dituen.*

- *Aztertzea ea Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legean ezarritako eskualdeen eraketak, xede duenak udalez gaindiko jarduerak kudeatu eta zerbitzuak ematea, solidaritate eta lurralde-oreka handiagoa ote dakarren eskualdea osatzen duten udalerriek zerbitzua modu integratuan eta bateratuan emateari dagokionez eta, horrenbestez, ea zerbitzu-ematea hobetzen ote duen.*

- *Nafarroaren despopulazioaren aurka borrokatzeko estrategian ezarritakoak diren plangintza operatiboko tresnak onestea; hots, urte anitzeko plana eta 2024ko urteko plan operatiboa, halatan zehazte aldera estrategia horrek jasotzen dituen jarduketak, bai eta hark definitzen dituen proiektuak garatzeko beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideen zuzkidura ere.*





- *Nafarroaren despopulazioaren aurka borrokatzeko estrategian ezarritako organoak eratzea.*

- *Giza eta diru baliabidez hornitzea Lurralde Kohesiorako Departamentuko unitate organikoak, despopulatzeari dagokionez esleituta dauzkaten eginkizunak bete ahal izan ditzaten.*

Ekialdeko Pirinioen Plan Estrategikoa

- *Parlamentuko ponentziak egindako eta Osoko Bilkurak 2018ko azaroaren 8an aho batez onetsitako txosteneko gomendioak betetzea; besteak beste, Gobernuak horren aplikazioaren berri emateko urteroko agerraldiari buruzkoa.*

- *Pirinioen Plan Estrategikoa bere osotasunean ebaluatzea, bai eta proiektu bakoitzaren ere, adierazle bereziak baliatuta gauzatzeari, emaitzari, eraginari eta pertinentziari buruz, betiere proiektuaren helburuei loturik.*

- *Urteko komunikazio-planak egitea, komunikazio-ekintzak planifikatzeko eta egintza- eta ekitaldi-egutegia jasotzeko. Urteko komunikazio-planak helburuak, ekintzak eta exekuzio-maila ebaluatzeko adierazleak zehaztu beharko ditu.*

Lurralde Kohesiorako Departamentua

- *Despopulatzearen aurka borrokatzeko ereduak ezartzea, Pirinioen Plan Estrategikoaren antzekoak direnak gobernantza-sistemari dagokionez; horretarako, lurraldean eta lurraldetik jarduketak sustatu eta exekutatu dira, eta Nafarroako beste eskualde despopulatu batzuentzako giza eta diru baliabideak paratuko dira.*

- *Aztertzea eta baloratzea Transferentzia Arruntetarako Toki Ogasunen Funtsean haztatuak izatea despopulatzearen arazoarekin zerikusia duten banaketa-irizpideak.*

- *Toki-entitateentzako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu bat ezartzea; bereziki, tamaina txikikoak direnentzako, besteak beste Europako funtsetarako irispideari eta beste laguntza eta dirulaguntza batzuei buruzkoa.*

Azpiegitura digitalak

- *Azpiegitura digital hauek egiteko beharrezkoak diren baimenetarako prozedura malgutu eta/edo arintzea.*

- *Nahitaezko zat ezartzea kanalizazioak egitea errepideetako inbertsioetan eta udaleko zoladura-lanetako inbertsioetan, zuntz optikorako eta etorkizuneko beste beharrezkoak diren batzuetarako.*

- *Toki Inbertsioetarako Planean jarduketa-lerro bat txertatzea, banda zabaleko azpiegiturak finantzatzeko, toki-entitate baten biztanle-gune guztiei eta industrial-dei abiadura handiko interneterako sarbidea emateko.*





V. Erantzukizuna

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ardura izan zuten despopulatzearen aurkako neurriak aurrera eramateaz, eta bermatu behar izan zuten eginiko kudeatze-jarduera eta -eragiketak araudiaren arabera zirela, eta beharrezko bideak ezarri behar zituzten proposaturiko helburuen lorpenean eraginkortasuna iristeko, bai eta helburu horien lorpenerako baliabide publikoen erabileran efizientzia eta ekonomia erdiesteko. Jomuga horretarako beharrezkoak jotzen zituzten barne-kontrolako sistemak ezarri behar zituzten.

Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizunaren nondik norakoa da konklusio batzuk adieraztea, despopulatzearen aurkako borrokarako beharrezkoak diren neurriak hartzeari buruzko gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako fiskalizazio-printzipio orokorren arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboari buruzko ISSAI-ES 300 delakoa aplikatu dugu, bai eta ISSAI-ES 3000n eta 3100ean jasotako jarraibideak ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira iritsitako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzeko prozedurak.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria biltzen du ateratako konklusioei funtsa emateko, salbu eta norainokoaren mugei buruz III. epigrafean, helburu, norainoko eta mugei buruzkoan, adierazitakoari dagokionez.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta jaulki da, zeina izan baita lan honen arduraduna.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua marjinean adierazitako egunean)





1. gehigarria. Fiskalizazioaren emaitzak

Gehigarri honetan jaso dugu fiskalizazioaren azpigelburuei buruz ateratako ondorioen garapen bat.

1.1 NFKAko gobernantza-sistema

Aztertu da ea NFKAk despopulatzearen aurkako politiken kudeaketarako gobernantza-sistema egokirik ezarri ote duen.

Horretarako, berrikusi egin dira Nafarroan despopulatzeari buruz onetsitako araudia eta plangintza estrategikoa eta Foru Administrazioak despopulatzearen aurka aurrera daramatzan ekimenen zuzendaritza, koordinazio eta jarraipenerako gobernantza-egiturak.

1.1.1 Araudia

- Ez da onetsi despopulatzearen aurkako foru legerik, erronka horri heltzeko berariazko neurriak eta ekintzak aratzen dituenik. Problema honi aurre egiteak politika publikoekin loturiko neurri ekonomiko, fiskal, arau-emaile eta administrazioak onetsi eta ezartzera behartzen du hainbat arlotan, hala nola hirigintza-antolamenduan, etxebizitzan, osasungintzan, gizarte-zerbitzuetan, hezkuntzan, sustapen ekonomiko eta industrialean, zerbitzu teknologikoetan, garraioan, turismoan eta kulturean, besteak beste.

Nafarroan despopulazioaren aurka borrokatzeaz 2023ko apirilean onetsitako estrategian oinarritzko eta lehentasunezko proiektu gisa proposatzen da Despopulatzearen aurkako Foru Legea prestatzea, strategiaren oinarriak finkatzearen.

Nafarroako Gobernuaren 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan jaso da ezen, behin despopulatzearen aurkako estrategia onetsita, eta horrexetan oinarrituta, urtebeteko epean Gobernuak Despopulatzearen aurkako Foru Lege bat aurkeztuko duela, zeinak barnebilduko baititu landa-eremuko berme-mekanismo bat, aurrera eramandako politika publikoak neurtzeko adierazleak eta Lurralde Egituraketarako Funtz (LEF) deritzon berariazko funts bat, Nafarroako Gobernuaren departamentu batean ala bestean kokatzen zailak diren ekimen transbertsalen garapenerakoa.

1.1.2 Plangintza estrategikoa

Despopulatzearen aurkako plangintza estrategikoko bitarteko hauek onetsi dira:

- Nafarroaren despopulazioaren aurkako borrokarako estrategia, Nafarroako Gobernuak 2023ko apirilaren 26an onetsia.

Estrategia hori definitzen da despopulatzearen arazoari modu bateratuan heltzeko plangintza transbertsaleko dokumentu gisa, eta azpimarratu egiten du proiektuak garatzeari begira finantza eta giza baliabideen esleipenak duen garrantzia.





Helburu orokorra da Nafarroako eskualde despulatuetan biztanleriari eutsi eta hura biziberritzeko baldintza sozialak, ekonomikoak eta lurralde-izaerakoak ezartzea. Horretarako, 25 ekimen-ardatz aurreikusten ditu, honako sei arlo hauetan: biztanle berriak, oinarrizko zerbitzuak, harreman sozialak, harreman ekonomikoak, kohesio ekonomikoa, lurralde-kohesioa eta landa-bizitzaren nortasun eta balioa.

Estrategian 14 zuzendaritza-proiektu jasotzen dira, lehentasunezkoak, eta horiek 25 ekimen-ardatzekin garatu eta osatu behar dira, hala nola despulatzearen adierazle dimentsioaniztun baten taxuketa, bai eta, besteak beste, zenbait azterlan, programa (landa-etxebizitza eskuratzekoa, landa-ekintzailtza sustatzekoa) eta planen (zahartzarolari buruzkoa, landa-inguruneko zainketei buruzkoa) prestaketarekin ere.

Estrategiaren ekimen-ardatzak plangintza operatiboko bi bitartekotan mamituko dira:

- Plan urteaniztuna: lau urtean gauzatu beharreko proiektu eta ekintzak jasoko ditu. 2023an egin beharko zen, eta ez zen egin.

- Urtebeterako plan operatiboa. Aurrekontuak onetsi aurretik egin beharko da, eta urtebeterako lehen plan operatiboa aldi berean egingen da plan urteaniztunarekin.

Estrategia ebaluatzeko, kudeaketa-adierazleak eta adierazle demografikoak erabiliko dira. Honako adierazle demografiko hauek ezartzen dira:

- Oinarrizkoak: populazio-dentsitatea eta populazio-hazkuntzaren tasa.
- Osagarriak: zerikusia dutenak populazioaren egiturarekin (populazio gaztearen pisu demografikoa, zahartze-indizea, gaztetasun-indizea, sexuen arteko ratioa) eta zerikusia dutenak populazioaren dinamikarekin (jaiotza-tasa, hilkortasun-tasa, hazkuntza naturala eta migraziozko hazkuntza).

- Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE) da Nafarroako lurralde-antolamenduko tresna. Lurraldean eragiten duten gainerako plan, proiektu edo jarduerak bideratzeko irizpideak ezartzen ditu. NLEa 2005ean onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, 25 urte inguruko indarraldi-aurreikuspenarekin.

2022an ekin zitzaion NLEaren berrikuspenari. Parte-hartze prozesu bat egin zen, eta Nafarroako toki desberdinetan 16 lurralde-mahai eta izaera teknikoko bost saio egin ziren. 2023ko maiatzean amaitu zen jendaurreko informazioaren eta entzutea ematearen tramitea.

- Pirinioen Plan Estrategikoa

Nafarroako Parlamentuaren 2018ko azaroaren 8ko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Ekialdeko Pirinioetako ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzeko





ponentziaren txostena. Ponentziaren gomendioetako bat izan zen Pirinioen Plan Estrategikoa presta eta ezar zedila.

Plana honako lau ardatz hauetan egituratzen da: herritarren parte-hartzea, ko-gobernantza, ekintza-plana eta komunikazio-plana.

Planak 130 eskaera eta horiek betetzeko neurri eta jarduketak jasotzen ditu, lau alorretan.

• Ez da planik ezarri despopulazte-arriskuan dauden Nafarroako beste esku-alde batzuetan despopulazteari heltzeko. Horri buruz, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak despopulazteari buruzko honako azterlan hauek egin zituen 2020an:


- Zangozerri eta Erdialdeko despopulazteari buruzko azterlana.
- Estellerriko Jurramendi azpieskualdeari buruzko azterlana.

Bi azterlan horietan ekintza-ildoak, proiektuak eta baliabideak jasotzen dira, azterturiko lurraldeetan biztanle-ezarpenarentzat lagungarri izaneren direnak.

1.1.3 Gobernantza-egiturak

Foru Administrazioan, 2019tik 2023ko maiatzerako epean, despopulaztearen aurkako borrokarekin zerikusia duten gaietan departamentu eskudunak ziren, gehienbat, Lurralde Kohesiorako Departamentua eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.

• Lurralde Kohesiorako Departamentuak dauka esleituta despopulaztearen aurkako estrategia kudeatzeko eskumena. Horretarako, honako unitate organikoetan egituratuta zegoen:



2019ko ekitaldian, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia eratu zen, eta horri zenbait funtzio esleitu zitzaizkion, hala nola erronka demografikoaren eta despopulazioaren aurkako borrokarako estrategia-rekin zerikusia duten neurriak aztertu, koordinatu, proposatu eta izapidetzea.

Despopulazioaren aurkako borroka-estrategia kudeatzeko eginkizunak dagozkio organigraman adierazten den atalari. Zeregin horretarako, langile bat baizik ez zeukan.

Departamentu honek txosten eta azterlan hauek egin ditu, besteak beste:

- Nafarroako despopulazio-arriskuaren mapa eta despopulazioaren udalerri-kako sailkapena.
- Nafarroako erronka demografikoari eragiten dioten politikak identifikatu eta ezaugarritzeko azterlana.
- Despopulazioaren aurkako borroka-estrategia.
- Nafarroan despopulazioaren aurka borrokatzeko estrategia.





Azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuaren bitartez, aldatu egin zen Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura, eta, despopulatzeari zegokionez, Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzua eratu zen, zeinari honako eginkizun hauek esleitzen baitzaizkio, besteak beste:

- Araudi bat prestatzea, bultzada emanen diona lurralde-kohesioari, erronka demografikoari eta despopulatzearen aurkako borrokari.


- Lurralde-kohesiorako, erronka demografikorako eta despopulatzearen aurkako borrokarako giltzarri diren politika publikoak aztertu eta planifikatzea.

- NDABE-Nafarroaren despopulazioaren aurkako borrokarako estrategiatik eratorritako proiektuak garatu eta kudeatzea.

- Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako politika publikoak gainerako departamentuekin koordinatzea.

Zerbitzu horri atxikita sortzen dira Análisi eta Plangintza Estrategikorako eta Politika Publikoen Koordinaziorako Atala eta Proiektu Kudeaketako Atala.

• Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Despopulatzearen aurkako ekintzak ardurapean dauzkaten edo aurrera eraman dituzten unitate organikoak honakoak dira:





Lurraldearen Antolamenduaren Atala Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari atxikita dago, eta esleituta dauzka “landa-eskualde despopulatu eta/edo txirotuak dinamizatzeko ekimenekin lankidetzan aritzeko eta horiei laguntza emateko eginkizunak, barne harturik xede horretarako egoki diren lurralde-antolamenduko tresnak proposatu eta izapidetzea”.

Despopulatzearen aurkako borrokan Foru Administrazioak duen ekintza nagusiaren –zeina baita Pirinioen Planaren exekuzioa eta segimendua– gaineko unitate organiko erantzulea Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia izan zen 2019-2023 legegintzaldian. Oraingo legegintzaldian, Pirinioen Plana bultzatu eta koordinatzea Lurralde Kohesioeko Departamentuari dagokio.

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eskumenak dauzka landa-ingurunearekin zerikusia duten gaitan, eta hain zuzen ingurune horretan eragiten du eta gehienbat kokatzen da despopulatzearen arazoa.

- Horrez gain, despopulatzearen aurkako borroka behartzen du zenbait arlotako ekintzak egitea, hala nola hezkuntza-zerbitzuak, osasungintzak, asistentzialak, garraioa, etxebizitza, zerbitzu digitalak eta kultura, NFKAko departamentu desberdinen eta horien menpeko enteen eskumenekoak diren beste gai batzuen artean.

- 2019ko azaroaren 13an eratu zen Despopulatzearen aurkako batzordea, transbertsalki koordinatzeko eta bultzatzeko departamentu desberdinen proiektu eta ekimenak eta prebentzio- nahiz samurtze-neurriak, despopulatzearen eta erronka demografikoaren aurkako borrokan. Batzordeburu Nafarroako Gobernuko lehendakaria zen, eta batzordekide ziren Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilaria batzordeburuorde gisa, departamentuetako 14 zuzendari nagusi, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hiru ordezkari.

Eratze-erabakiak dioenez, batzorde hau hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. Alabaina, 2019ko azaroaren eratu zenetik 2023ko ekainera bitarte, batzordeak bilera bat egin zuen 2019an, beste bat 2020an, bi 2021ean, bi 2022an eta bat 2023an; guztira, zazpi bilera.

Bileretan aurkeztu ziren despopulatzeari buruzko azterlan eta lanak eta departamentuak eginak zituzten ekintzak, haien ustez despopulatzearen aurkako borrokan muntadun zirenak. Halaber, despopulatzearen aurkako borrokarako estrategiaren proiektua aurkeztu, eta batzordekideei horri buruzko proposamenak eskatu zitzaizkien.

Lehenagoko gobernantza-sistema aldatu egin da 2023ko apirilaren 26an onetsitako NDABE-Nafarroaren despopulazioaren aurka borrokatzeko strategiaren bitartez, zeinak honako bi organo hauen inguruan antolatzen baitu gobernantza:





- Despopulazioaren aurkako departamentuarterko batzordea: strategiaren koordinaziorako eta segimendurako organoa. Horren eginkizunen artean daude despopulazioaren aurkako borrokarako plan urteaniztuna onestea, bai eta horri loturiko plan operatiboak ere. Urtean hiru bider bildu beharko da, gutxienez.

- Despopulazioaren aurkako borrokarako Talde Eragilea, zeinak idazkaritza tekniko bat baitauka. Honakoek osatzen dute taldea:

Departamentuek, beren zuzendaritza nagusien bidez; eta despopulazioaren aurkako borrokan eragin berezia duten erakunde autonomoek.

Lurralde-ordezkaritzadun entitateek, hala nola Toki Ekintzako Taldeek, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Barrutiek eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak.

Nafarroaren despopulazioaren aurka borrokatzeko estrategiak bulego tekniko baten eraketa aurreikusten du, zeina Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa izanen baita.

2023ko abenduaren 31n, eratu gabe zeuden aipaturiko organo guztiak, bai eta bulego teknikoa ere.

Nafarroako Foru Komunitateak Erronka Demografikoari buruzko Konferentzia Sektorialean parte hartzen du, zeina 2020ko uztailaren 23an eratu baitzen. Konferentzia Sektoriala da Estatu Administrazio Orokorren, autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen arteko lankidetzako organoa, xede duena Espainian erronka demografikoei aurre egiteko politiken koordinazioa eta arlo horretako elkarlana; eta, bereziki, despopulazioa, pixkanakako zahartzea eta biztanleria erroldatugabearen efektuak.

1.2 Ekialdeko Pirinioetako despopulazioaren aurkako neurriak

Ponentzia parlamentarioa

2016an, diagnostiko bat egin zen, abiapuntutzat harturik Pirinioetako toki-kargudunek, elkarteek, kolektiboek, eragile sozial eta ekonomikoek, profesionalek eta bizilagunek eginiko ekarpen eta proposamenak. Agerian geratu zen Ekialdeko Pirinioek jasaten duten biztanleria-galera deigarria.

Lurralde horrek ezaugarritzat ditu biztanle-sakabanaketa handia, populazio zahartua, garapen ekonomikorako azpiegiturarik eza, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako jarduerak egiteko zailtasunak eta zerbitzu-premiak. Horren ondorioak negatiboak dira ondarearentzat kulturaren, historiaren, paisaiaren eta naturaren ikuspegietatik.

Halaber esaten zen Ekialdeko Pirinioen kinka zail eta kritiko hori are larriago bihurtzen zela zenbait berezitasun gehitzen direlako despopulazio-indize altuak dituzten beste eskualde batzuen aldean; adibidez, herrigune garrantzitsuetarako





edo zerbitzuetarako distantzia, eskualdearen orografia, zeinak zaildu egiten baititu komunikazioak eta azpiegituren garapena, eta klima, besteak beste.

Nafarroako Pirinioek Foru Komunitatearen azaleraren ehuneko hamar hartzen dute, baina nafar populazioaren ehuneko bata baino ez.

Ponentziak lehenasunezko gomendioak jasotzen ditu etxebizitza, hezkuntza, osasun, garraio eta araudiari buruz.

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen ponentzian adierazitako gomendioak praktikan jartzera; eta, gobernua kontrolatzeko daukan eginkizunean, gomendioen exekuzioaren jarraipena egitera konprometitu zen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, 2019ko urriaren 7an erabaki zuen Ekialdeko Pirinioei buruzko Ponentziaren eta Parlamentuko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako txostenaren jarraipenerako Batzorde Berezia eratzea. Batzordea talde parlamentario guztiek osatzen dute.

Eratu zenetik, batzorde horrek bilkura bat egin zuen, 2022ko azaroaren 23an.

Orobat, 2023-2027 legegintzaldi berrian, 2023ko urriaren 19an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen 2019an eraturiko batzordeak zeukan helburu bera duen berariazko batzorde bat eratzea.

Batzorde hori 2023ko azaroaren 14an eratu zen, eta 2024ko otsailaren 7an egin zuen bere lehenengo bilera, zeinean tratatu baitziren exekuzio-proiektuak eta egindako erreformak, bai eta eginkizun zirauten jarduerak ere. Pirinioen Mahaiak bileran parte hartu eta balioan jarri zuen ezarritako kobernanta-sistema; eta adierazi zuen beharrezkoa zela Toki Mapa aldatzea, despopulatzeari buruzko lege bat onestea, kasuko legedian aintzat hartua izatea Pirinioetako etxebizitza-problematika, eta orobat aintzat hartua izatea urterik urte adibidez eskolak edo eskola-garraioa finantzatzerakoan Parlamentuko zuzenketekiko dagoen menpekotasuna.

Parlamentuko ponentziaren gomendioetako bat izan zen Pirinioen Plan Estrategikoa egin eta abiaraztea, zeinak ere jasotzen baititu ponentziaren gomendioak, horiek ekintza-planaren bitartez bete daitezzen.


Pirinioen Plan Estrategikoan jasotako gobernanta-eredua, ekintza-plana eta eginiko jarduketei buruzko komunikazio-plana aztertu ditugu.

Pirinioen Plan Estrategikoaren gobernanta-eredua

Pirinioetako despopulatzearen arazoari heltzeko eraturiko gobernanta-eredua honako organo eta entitate hauek osatzen dute:

- Pirinioen Mahaia: Planaren esparru geografikoko toki-entitateen ordezkariak osatua. Horrek onesten ditu Urteko Ekintza Plana, aurreko urteko Urteroko Oroi-





tidazkia eta Urteko Aurrekontua. Batzar Nagusiak baliozkotu ditu horiek. Egin-kizun ditu lurraldearen dinamizazioa eta batzorde sektorialen ekintzen lehenes-pena.

- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategiko-etako Departamentua: haren ardurapean egon zen Pirinioen Plan Estrategikoaren exekuzio eta jarraipena, lankide izan zuela lurralde-lantalde bat, honako bi entitate hauetako langile teknikoek osatua:

- Nasuvinsa sozietate publikoa: Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren bitartez. Nasuvinsaren unitate tekniko bat da, martxoaren 28ko 12/2018 Foru Dekretuaren bidez eratua Nafarroako lurralde osoan garapen jasangarriari bultzada emateko eta lurraldea dinamizatu eta sustatzeko, besteak beste.

- Cederna Garalur partzuergoa: toki-ekintzako talde gisa dihardu eskualdearen garapen sozioekonomikoari bultzada ematen, xede harturik populazioari eutsi eta gehiago erakartzea, toki- eta eskualde-ekintzak aldeztuz.

Nasuvinsak eta Cederna-Garalurrek helburutzat daukate Pirinioen Plana dinamizatzea, betetzea eta horren segimendua egitea, bertan kokaturiko "lurralde-ekipo" delakoan eta gobernantza-organoetan parte hartuz; eskaerak bilduz; horiek ebaluatuz, exekutatzuz, informatuz eta administrazio eskudun nahiz zeresana duten eragileei helaraziz; eta proiektuen aholkularitza teknikoaz eta plangintzaren, finantzaketaren eta exekuzioaren segimendua eginez, besteak beste.

Nasuvinsak eta Cederna-Garalurrek helburu horiek betetzen dituzte lurralde-ekipoa entitate bakoitzetik osatzen duten bi teknikarien bitartez.

Hauek dira ordezkaritza politikoko organoak:

- Pirinioetako Batzarra: bertan parte hartzen dute talde parlamentarioek, Pirinioen Mahaiak eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak. Baliozkotu egiten ditu ekintza-plana, aurreko urteko Urteroko Oroitidazkia, urteko aurrekontua eta bere kideek aurkezten dituzten proposamenak. Urtean behin biltzen da.

- Segimendu-batzordea: bera osatzen dute Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentziaren segimendu eta kontrolerako batzorde parlamentario bereziak, Pirinioen Mahaiak eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak. Duen eginkizuna da aipatu ponentziaren segimendua egitea.

Honako lan-unitate hauek sortu dira:

- Batzorde sektorialak: Planak zehazturiko lau alorretako bakoitzeko lantaldeak, beharrezanez heldzen dietenak ekimenen bitartez, zeinak Pirinioen Mahaiari





bidaltzen baitizkiote. Kasuan kasuko arloko gaiaren arabera 11 lantaldetan antolatu dira. Haien kide dira Pirinioen Mahaiaren ordezkariak, lurralde-teknikariak eta beste eragile batzuk, publikoak eta/edo pribatuak, sektorearekin zerikusia dutenak.

- Lurralde-ekipoa: horren kide dira Nasuvinsako bi teknikari eta Cederna-Garalurreko beste bi, zeinek lurraldean bertan baitihardute, Pirinioetako bi bulegotan, eta Nasuvinsako koordinatzaile bat.

Lurralde-ekipoak transbertsalki lan egiten du lau alorretan, eta, besteak beste, eskaerak biltzen eta analizatzen ditu, Pirinioen Planeko ekintzak gauzatzen ditu eta haien exekuzio-egoerari buruzko txostenak jaulkitzen ditu.

Ekipo hori Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak finantzatu zuen. 2024tik aurrera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak finantzatua da.

- Gai desberdinetan zeresana duten elkarlangile publikoak eta pribatuak, toki-mailakoak nahiz erregio-mailakoak: toki-entitateak, nekazaritza-ganbera, INTIA, eskualdeko biztanleak, enpresak, elkarteak, ikastetxeak eta abar.

- Herritarren foroa: informazio-gune irekia, zeinetara dei egiten baitie Pirinioen Mahaiak lurraldeko bizilagun eta eragileei, proposamenak biltzeko eta planaren egoeraren berri emateko.

- Komunikazio Batzordea: Komunikazio Plana gainbegiratzen du. Horren kide dira Pirinioen Mahaitik, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentutik, Nasuvinsatik eta Cederna Garalurretik igorritako zenbait ordezkari. Batzorde hau ez dago operatibo.

Pirinioen Ekintza-plana

Ekintza-plana Pirinioen Mahaiak onetsita dago, eta barne hartzen ditu lurralde-teknikariak bide desberdinetatik eta entitate desberdinengandik (herritarren foroa, elkarlangileak eta abar) jasotzen dituzten eskaerak, zeinak, behin aztertuta, batzorde sektorialeki helarazten baitzaizkie, haien lehenespen-hurrenkera eta baliozkotzea erabakitzeko.

Ekintza-planean halaber jasotzen dira Parlamentuko ponentziak egin zuen txosteneko gomendio batzuk.

Pirinioen Plan Estrategikoko Ekintza-planak 130 eskaera jasotzen ditu. Hori-etatik zazpi transbertsalak dira sektore guztien artean, eta berdintasunaren eta euskararen sustapena dute gai.





2020-2023 epeari dagokion plana ebaluatzeko txostenaren arabera, lehentasuna eta, oro har, erantzun asegarria eman zaie honako 12 eskaera hauei:

Alorra	Eskaera-kop.	Eskaera lehenetsiak
Turismo jasangarria, hurbileko merkataritza, zerbitzuak	73	- Pirinioak marka - Dinamizaziorako langileak kontratatzea - Prestakuntza
Industria, ekintzailtza eta lurraldegarapen jasangarria	14	- Banda zabala - Enplegu-poltsa - Enpresa autonomoei laguntzea
Abeltzaintza, nekazaritza eta oihantzaintza	22	- Nekazaritza Politika Erkidea ezagutzea eta lurraldearentzako balizko hobekuntzak - Lehen sektorearen analisia - Intereseko proiektuak
Etxebizitza, garraioak eta azpiegiturak	21	- Etxebizitza publikoaren eta pribatuaren analisia - Errepidezko hiriarteko bidaiari-garraioari buruzko plan integrala - Etxebizitza-birgaitzeari buruzko araudiaren hobekuntza
Eskariak, guztira	130	12

Alorretako batean eginiko ekintzak hauexek izan dira:

1- *Turismo jasangarria, hurbileko merkataritza eta zerbitzuak*

Lehenetsi eta ase ziren hiru eskaerak honakoak izan ziren:

- "Pirinioak marka" sortzea: turismo-alorreko lantalde bat eratu zen, turismo-kudeaketarako unitateak eratu ziren Next Generation funtsekin finantzatzeko moduko proiektuak taxutzeko, Pirinioetako Helmugako Turismo Jasangarritasunerako Planaren (HTJP) kudeaketarako plana idaztea eta HTJP proiektua idaztea, zeinarengatik 2023an 4,7 milioi jasoko baititu lurraldeak. Nafarroako Pirinioak HTJPa lau ardatzetako 15 ekintzatan mamitzen da. Guztizko inbertsioa 4,74 milioi eurokoa du, eta horien ehuneko 30 2024an exekutatu litzateke; gainerakoa, 2025ean. Funtsak 2023an jaso ziren.

- "Gu Pirinoa" lurralde-ekipoa sortzea eta turismoaren alorreko lanbide-eskakizuna betetzen duen pertsona bat eta turismoko lantaldearen arduradun gisa beste pertsona bat kontratatzea.

- Ikasleen praktikaldiak Pirinioetan eta etengabeko prestakuntzako programak.



**Gainera, jarduketa hauek egin ziren:**

Jarduketak	Adierazleak
Autokarabana-esparruei buruzko azterlana	
Turismo-masifikazioko zonetarako azterlanak, Red Explora-rekin elkarlanean	
Adineko pertsonen beharrezanean eta haien bizi-kalitatea hobetzeari buruzko azterlana	Azterlanean 130 pertsonak parte hartu zuten eta 60 proposamen aurkeztu ziren
Hurbileko merkataritza sustatzeko plana	
Osasuna: osasun-tratamendu espezializatuak jasotzeko osasun-garraioko proiektu pilotua eta farmazientzako laguntzak.	
Hezkuntza: derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzaren eskaintza Irunberriko Institutura hedatzea, derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzarako eskola-garraioa, unitate didaktiko bat egitea,	1.284 galdetegi, lurraldean 18 urtera birtarteko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako institutu baten beharri eta horren kokalekuari buruzko hiru kontsulten gainekoak
Kultura, Gazteria eta Kirola: kultur eskaintza eta kontzertuetarako sei proiektu.	5.000 partaide udako Txistuka musika-zikloko ekitaldietan.
Erregistro-bulegoak abiaraztea ziurtagiri digitalerako	

Ekintza-planaren ebaluazioan nabarmendu egiten da honako eragile hauen inplikazioa: Hezkuntza Departamentua, Landa Garapen eta Berdintasuneko Departamentua, Cederna Garalur, Lursarea, Pirieskola eta toki-entitateak.

2- Industria, ekintzailtza eta lurralde-garapen jasagarria

Arlo honetan hiru eskaera hauei eman zitzaizkien lehentasuna eta erantzuna:

- 1.- Banda zabalaren hedapena: toki-entitateekiko sei hitzarmen sinatu ziren.
- 2.- Enplegu-poltsa: enplegu-bilaketarako plataforma bat sortu, kudeatu eta dinamizatu zen.
- 3.- Enpresa autonomoentzako sostengua: ekintzailtza-polo bat diseinatzea, eta ekintzailtza soziala sustatzeko nahiz proiektu ekintzaileei lagun egiteko mugartea zehaztu zen. Ekonomia sozialeko prestakuntza eman zen. Bi ekintzailtza-nodo abiaraztea.

Etengabeko prestakuntzarako eskaerak eskaera lehenetsi gisa agertzen segitzen du, baina ez da jarduketarik egin. Horri buruz, adierazten da ezen transbertsalki ekin zaiola, "ekin, hazi, zaindu eta landa Pirinioa" etengabeko prestakuntza-programaren bitartez, eta turismo jasagarriaren, hurbileko merkataritzaren eta zerbitzuen sektorean jaso dela.





Gainera, jarduketa hauek egin ziren:

Jarduketak	Adierazleak
Abaurregaineko, Abaurrepeko, Aribeko eta Otsagabiko behinolako patata-biltegiak birgaitzea eta Ariben hiru co-working gune eta supermerkatu bat irekitzea	11 ekintzaile, co-working sarean kokatuak
Industria-lurzoruetarako eskaeraren analisia eta industrialdeen egoerari buruzko diagnostikoa.	
Pabiloiak eraikitzea Otsagabian	
Urrobi industrialdea dinamizatzeko plana	
Belaunaldi-berritzerako programa	64 pertsonak parte hartzea
Ekintzailtza- eta berrikuntza-proiektuak dinamizatzeko programa	
Pirinioei buruzko jardunaldia, eralda-ekintzailtzako ekosistemak eta ekonomia soziala	150 parte-hartzaile

3- Abeltzaintza, nekazaritza, basozaintza eta ingurumena

Arlo honetan, honako hiru eskaerak lehenetsi ziren:

1. Nekazaritza Politika Erkide berria ezagutzea eta lurraldearentzako balioko hobekuntzak: ez da agertzen inolako jarduketarik egin izana.
2. Pirinioetako lehen sektorearen analisia: Pirinioetako nekazaritza-elikagietako aukerak aztertu ziren eta foku-taldeak dinamizatzeko ekintzak burutu ziren. INTIA sozietate publikoak sostengu teknikoa eman zuen.
3. Intereseko proiektuak: ez da agertzen inolako jarduketarik egin izana.

Bestalde, jarduketa hauek egin ziren:

Jarduketak
Garraldako hiltegia: 2021eko azterlana; 2024an, proiektua idazteko zegoen.
Herri-lurrak: ordenantzen analisia, kudeaketa-neurrien proposamenak eta jardunaldiak
Lakabeko nekazaritza-konpostatze instalazioari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketa.
Lehen sektoreko belaunaldi-berritzea: <ul style="list-style-type: none">- Problematikaren azterketa.- Nabaskozeko ustiategi baten azterketa.- Sostengu-ekintzak.





4- Etxebizitza, garraioak eta azpiegiturak

Hiru eskaera lehenetsiei dagokienez egin diren jarduketak honako hauek izan dira:

1.- Etxebizitza publikoaren inbentario bat egitea

Oroitidazkiak eta txosten baloratuak egitea etxebizitza publikoaren birgaitze-ari buruz.

- 31 etxebizitza publikoren birgaitzea.
- Pirinioetako etxebizitza-eskaeraren analisia. 127 pertsonak parte hartu dute. Jada erabiltzen ez diren etxebizitza pribatuei buruzko diagnostikoa.
- PIRIETXE programa ezartzea etxebizitza pribatuaren parkea dinamizatzeko, alokairu-poltsan sartua izan dadin aldeztuz.
- Garraldan 10 passive house etxebizitza eraikitzea.
- Pirinioetan etxebizitzari buruzko jardunaldiak antolatzea

2.- Etxebizitzak birgaitzeari buruzko araudia hobetzea: atal honetan azpimarratzekoa da landa-etxebizitzari buruzko 2022-2023 programa eta etxebizitza publikoaren parkearen dinamizazioa.

3.- Errepidezko hiriarteko bidaiari-garraioari dagokionez: elkarlaguntzazko mugikortasunerako plataforma bat taxutu zen Pirinioetarako, mugikortasun-beharrizanak aztertu ziren eta zerbitzu publikoetarako nahiz zerbitzu zehatzetarako eskatuzko garraiorako proiektu pilotu bat abiarazi zen.

Arlo honetan eginiko beste jarduketa batzuk izan ziren:

Jarduketak

Programa pilotuak:

- Gazteentzako etxebizitzak birgaitzea
- Bizitegi konpartitua

Lurraldea mapatzea, pilotze-puntuak kokatzeko

Eraikin publikoen inbentarioa, biomasa-instalaziorako

Udal-eraikinetako beharriaren analisia





Transbertsalki arlo guztietakoak diren eskaerak

Planaren ebaluazioari buruzko txostenean berdintasunaren eta euskararen alorretako jarduketa hauek jasotzen dira:

Berdintasuna
Bi hitzarmen sinatzea 28 udalekin, bi berdintasun-teknikari kontratatzeko
"Etengabe aurrerantz doan gizarte batentzako genero-jarduerak" proiektua, Laurentxi emakume-elkartearena.
Euskara
Inkesta, toki-entitateek euskararen inguruan dauzkaten premiei buruzkoa.
Euskalki-foro baten antolaketa.

Pirinioen Planari buruzko informazioa eta komunikazioa

Sistema bat ezarri da Pirinioen Planaren exekuzioari buruzko informaziorako eta barne nahiz kanporanzko komunikaziorako.

Pirinioen Planean parte hartzen duten eragileen arteko barne-komunikazioa hiru mailatan ezartzen da. 1. mailak barne hartzen ditu eragilerik inplikatuena; 2. maila da proiektuan inplikazioa hain zuzeneko ez dutenentzat; eta 3. maila da planaren gobernantzan zuzeneko parte-hartzerik izan ez baina horren ekintzen eragina jasaten duten eskumenak dituzten departamentu eta sozietate publikoena.

Pirinioetako Planaren kanpo-komunikazioa tokiko publikoari eta publiko orokorrari nahiz antzeko problematika duten Nafarroako beste eskualde batzuei zuzentzen zaie. Helburua da Pirinioei buruz irudi bat indartu eta transmititzea leku bizidun eta aktiboa izatearena, bizitza-proiektu bat gauzatzeko erakargarria, lan-aukerak eskaintzen dituen eta biztanle berriak erakartzeko moduko zerbitzuak eta kultur eskaintza dauzkana.

Ezarri diren barne- nahiz kanpo-komunikazioko tresnak honakoak izan dira, besteak beste:

Komunikazio-tresnak	
Barnekoa	Kanpokoak
Komunikaziorako plantillak	Pirinioen Planaren webgunea
Bilera-egutegia	Sare sozialetako kontuak (Twitter, Facebook, WhatsApp eta Instagram)
Funtzionamendu-protokoloak	Urteko berripapera
Dokumentu-funtsa, irudiena eta jaulkitako prentsa-oharrena	"Pirinioak, zure aukera" kanpaina
85 erreportaje Mendixut toki-aldizkarian	Marka-irudia
4 solasgune	
Jardunaldiak eta ekitaldiak: "Pirinioetako topaketak", toki-komunikabideak lurralde-garapenaren bizigarri bezala, besteak beste	

2020ko ekainean, urte horretarako komunikazio-plana egin zen. Plan horren ezarpen eta segimendua Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta





Proiektu Estrategikoetako Departamentuari dagozkio. Lurraldean eginiko komunikazioan, Nasuvinsako eta Cederna Garalur-eko teknikariek parte hartu zuten.

Urteroko otsailean urteko komunikazio-planak egitea aurreikusten da, komunikazio-ekintzak planifikatzeko eta egintza- eta ekitaldi-egutegia jasotzeko. Urteko komunikazio-planak helburuak, ekintzak eta horien exekuzio-maila ebaluatzeko adierazleak zehaztu beharko ditu kasuko aginte-koadroan.

2020an eratu zen Komunikazio Batzordea, proiektuaren gaineko informazioa jaso, komunikazio-alorreko proposamenak bideratu eta komunikazio-lanak zuzendu eta gainbegiratzeko. Pirinioen Planaren 2020-2023 epea ebaluatzeko oroitidazkian ikusten denez, batzorde hau ez zen operatibo egon.

Pirinioetako azpiegituretarako inbertsioak: aparteko proiektuak

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak azpiegituretarako inbertsio hauek exekutatu ditu Pirinioetan:

- Artziko Jauregia birgaitzea eta bainualdeak eta Ermitauaren Etxea egokitzea.

FEDER Nafarroa 2014-2020 programako REACT funtsekin finantzatu zen Artziko Jauregiaren birgaitzea, kafetegi bat, jatetxeak eta erabilera anitzeko aretoak paratzekoa, bai eta Ermitauaren etxearena ere. Bi eraikin horiek aurri-egoeran eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari atxikitako eremu batean kokatuak daude. Birgaitzearen kostua 3,29 milioira iritsia zen 2023ko abenduaren 31n.

- Zandueta

2022an, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari esleitu zitzaion Artzibarko Zandueta deritzon aurkintza. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak 2022an parte-hartze prozesu bat sustatu zuen, Zanduetak har litzakeen balizko erabilerei buruzkoa. Eremu horretan egindako jarduketengatik gastuak 38.000 eurora iritsita zeuden 2023ko abenduaren 31n.

- Nabaskozeko Ascunce Etxea

EBko Next Generation funtsekin finantzaturiko inbertsioa, eta txosten honen 1.4.1 epigrafean aztertua

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren gastuak, Pirinioen Plan Estrategikokoak

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak 2020-2023 epean Pirinioen Planeko jarduketengatik eginiko gastuak 14,46 milioikoak izan ziren, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:





	2020	2021	2022	2023
Dirulaguntzak	219.951	889938	2927858	3013432
Pirinioetako proiektuak	153.951	87826	88798	81447
Inbertsio-proiektuak		597.514	594498	839492
Bizitzeko eta lan egiteko guneak sortzea			241.662	
Toki-entitateei biztanleak atxikitze proiektuak			223.075	
Enpresentzat, ekintzailetzarako		64.771	868329	843553
Etxebizitza eskuratzea (PIRIBIZI)			70.000	150891
Pirinioak dinamizatzeko elkarteak			50.994	63484
Aribeko Udala aparkalekua	66000			
Artzibarko Udala, edateko uren araztegia		36.833		
Garraldako Udala; inbertsio desberdinak		15.000	50000	150000
Garaioako Udala; udal-eraikinaren birmoldaketa		50.000		
Zaraitzuko Batzarra: jarduketak Erremendian, Abodi proiektua		37994	45000	40000
Abaurregaineko Udala: ingurunea atsegin egitea modu jasangarrian, birgaitzea			75000	314000
Orotz-Beteluko Udala: garapen jasangarria Itoitzzen			12500	
Hiriberri-Artzibarko Kontzejua: kontzejuaren etxea birgaitzea			80.000	
Erroibar eta Aurizko udalak				58.595
Hiriberriko Udala				21.970
Digitalizaziorako dirulaguntzak			528.002	450000
Obrak		18.150	3303364	2818157
Artziko Jauregia			3.268.319	2809833
Ermitauaren Etxea		18.150	19920	
Zanduetako lastategia			15.125	8324
Lurralde-ekipoa	172837	287887	344803	345000
Cederna-Garalur-ekiko hitzarmena	51.968	99066	95000	95000
NASUVINSArekiko hitzarmena	120.869	188821	249803	250000
Komunikazioa	15.287	29441	29568	39813
Gastuak, guztira	408.075	1225416	6605593	6216402

1.3 Lurralde Kohesiorako Departamentuaren neurriak

Dirulaguntzak

- 5/2020 Foru Legeak, martxoaren 4koak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, erabakimen askeko Toki Inbertsioen Plan bat jaso zuen, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrientzako, despopulatzearen aurka borrokatzeko.

Aipatu planaren kargura, 2020an bost milioi onetsi ziren 260 udalentsat, edozein motatako inbertsioak finantzatzeko, despopulatzearen aurkako borrokarekin zerikusia zuela nahiz ez zuela. Dirua emateko irizpidea udalerraren populazioa izan zen. Diruz lagundutako 260 udalerrietatik, 87k ez zuten despopulatze-arris-





kurik agertzen Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin zuen maparen arabera, eta dirulaguntzaren ehuneko 40 jaso zuten. Despopulatze-arriskua bazeukaten 173 udalerriek jaso zuten onetsitako guztizko kopuruaren ehuneko 60.

Populazio-tarteka, honakoak izan ziren dirulaguntzak:

Populazioa	Udalerri-kopurua	Ekarpena udal bakoitzeko	Ekarpena populazio-tartearen arabera
< 2.000 biztanle	212	16518	3501816
2.000 eta 2.999 biztanle artean	23	26000	598000
3.000 eta 10.000 biztanle artean	25	36000	900000
Guztira	260		4999816

Beraz, nahiz eta despopulatze-arriskuko udalerriei mesede egin dien, ez dirulaguntza honen xedeak (edozein motatako inbertsioak finantzatzea) ez eta onuradunek ere (10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerri guztiak) ez daukate zerikusirik despopulatzearen aurkako borrokarekin, dirulaguntzari, hura onestean, ezarri zitzaion helburua ez bezala.

- 2021ean 500.000 euro egiten zuen dirulaguntza-deialdi bat onetsi zen, despopulatze-arriskuan dauden toki-entitateentzako, zeinaren helburua baitzen despopulatzearen aurkako borrokara bideratuta dauden gastu arrunteko neurriak finantzatzea.

2021eko maiatzean eragozpen-ohar etengarri bat aurkeztu zen deialdiaren oinarrien aurka. Kontu-hartzailatza Nagusiak eragozpen-oharra ebatzi zuen, eta izapidetzeari berrekin zitzaion. 2021eko azaroan, behin toki-entitateek gastua eginda eta justifikatuta, eragozpen-ohar etengarri bat aurkeztu zen dirulaguntzen emateari buruz, eta onetsitako dirulaguntzak ez ziren ordaindu, hain zuzen ere, departamentutik adierazi digutenez, ez zegoelako "denbora nahikorik eragozpen-oharraz ebazteko".

- 2021ean beste dirulaguntza-deialdi bat onetsi zen, 1,2 milioi egiten zuena, despopulatze-arriskuan dauden toki-entitateentzat, despopulatzearen aurkako borrokara bideratuta dauden gastu arrunteko neurrietarako. Balorazio-irizpidez hartzen dira toki-entitatearen despopulatze-arriskuaren indizea eta biztanleriaren zahartze-maila.

1,2 milioi egiten zuten dirulaguntzak 30 toki-entitateri ematea onetsi zen; horietatik, 934.744 euro ordaindu zitzaizkien 25 toki-entitateri, justifikaturiko gastuaren arabera.

Onetsi egin ziren, baina funtsik ezagatik finantzaketarik gabe geratu ziren, 7,91 milioi egiten zuten proiektuak, 129 toki-entitaterenak. Onetsi bai baina gastatu ez zen kreditua, 265.256 eurokoa, ez zen banatu aipaturiko entitateen artean.





Ondorioz, dirulaguntza horiek emateko onetsi zen aurrekontu-kreditua ez zen nahikoa izan despopulazate-arriskua zeukaten udalerrri guztiei erantzun ahal izateko.

Inbertsioak

2021ean, departamentuak lau milioi inbertitu zituen despopulazate-arriskuan dauden arrisku-eskualdeetan kokaturiko 24 errepideren zoladura indartzeko obretan, honako kontserbazio-zentroetan:

	Errepide-kop.	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Gastua (2021)
Agoitz	6	1000000	1000000	1000000
Irurizun	7	1000000	1000000	999754
Lizarra	6	1000000	1000000	999998
Tafalla	5	1000000	1000000	999971
	24	4000000	4000000	3999723

Errepideetako inbertsioei dagokienez, Nafarroako Errepideen III. Plana (2010-2018) exekutatu izaten ari da. Horretan ez da inolako despopulazio-irizpiderik jasotzen, baizik eta, oro har, lehenetsi egiten da jarduketek ahalik eta erabiltzaile gehienei onura ekartzea.

Programak eta proiektuak

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren despopulazio-arloko programak eta proiektuak honako hauek izan dira:

- Sustraiak programa.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak 2021ean 40.896 euroekin eta 2022an 60.188 euroekin finantzatu zuen ikasleek praktikak egin zitzatela despopulazateak jotako udalerrietako entitate publikoetan nahiz pribatuetan. Ildo horretan, 2022an, departamentuak eta NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Fundazioak hitzarmen bat sinatu zuten, "Sustraiak programa" deritzon landa-eremuko Erasmus moduko bat 28 ikaslerentzat sustatzeko.

- Proiektu pilotu bat San Martin Unxen.

2022an, Lurralde Kohesiorako Departamentuak 60.000 euroko dirulaguntza izendun bat ematea onetsi zuen, xede zuena San Martin Unxen despopulazatearen aurkako eta toki-suspertzearen aldeko plan estrategiko bat egin eta exekutatzeko, problematika bera pairatzen duten beste udalerrri batzuetan kopiatzeko modukoa.

Dirulaguntza hori ez zen ordaindu, deseztatu egin baitzen Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontu-hartzaille delegatuak 2022ko abenduan aurkeztu zuen eragozpen-ohar etengarria tarteko; izan ere, Kontu-hartzailtza Nagusiak kontu-hartzaille delegatuaren alde ebatzi zuen kudeatze-organoak planteaturiko desadostasuna.







Transferentzia Arruntetarako Foru Ogasunen Funtza (TAFOF)

TAFOFak honako osagai hauek dauzka, zeinek adierazten den zuzkidura baitaukate 2023. urtean:

	Zenbatekoa, 2023
Finantzaketa Orokorreko Funtza	223.375.666
Zerbitzuak Finantzatzeko Funtza	22.040.000
Montepioen defizita Finantzatzeko Funtza	25.553.861
Lurralde Kohesiorako Funtza	17.852.400
Transferentzia arrunten funtsaren guztizkoa	288.821.927288.821.927

- Finantzaketa Orokorreko Funtza (FOF) banatzen da kontuan hartuz udalerrien gastu-premien berri ematen duten bost aldagai eta haien ahalmen fiskalaren berri ematen duten lau aldagai. Lehenengoek, osorik hartuta, banaketaren % 75 egiten dute, eta bigarrenak, gainerako % 25a.

Gastu-premien berri ematen duten adierazleen artean pisurik handienekoa biztanleria da, ehuneko 64,575 hartzen baitu. Despopulatzeaz denaz bezainbatean, azpimarratzekoa da ezen, hasieran, 30.000 euroko zenbateko finkoa esleitzen zaiela 1.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriek, eta 25.000 eurokoa, berriz, 1.000 biztanle baino gehiago eta 2.500 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriek. Gainerako zenbatekoa udalerrri bakoitzari esleitzen zaio bertako biztanleriak Nafarroako biztanleria guztiaren gainean egiten duen portzentajearen arabera.

65 urte baino gehiagoko biztanleriak, haztatua FOFeo udalerrri bakoitzak horrelako populazioari dagokionez daukan zahartze-mailarekin, ehuneko 0,675 pisatzen du; eta biztanleriaren sakabanaketa-indizeak, ehuneko 1,875.

- Zerbitzuak finantzatzeko funtza, 2023an 22 milioirekin zuzkitua, lau zerbitzu publikoren arabera baizik ez da banatzen: haur- eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak, haur-hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0-3 urte) eta udal liburutegiak.

2023an, despopulatze-arriskuan zeuden 166 udalerrietako 84k 3,97 milioi jaso zituzten, FOFearen guztizkoaren ehuneko 18, ondoko koadroan erakusten denez:

Arrisku-mota	Udalerrien guztizko kop.	FOF kobratu duten udalerrien kopurua	Kobratutako zenbatekoa
1 Muturrekoa	77	34	311729
2 Gogorra	29	8	231609
3 Muntazkoa	37	22	1744027
54 Gainbehera bizian	6	4	187952
5 Gainbehera moderatuan	17	16	1499264
Guztira	166	84	3974581

Lurralde Kohesiorako Funtzak finantzatzen ditu beren lurralde-inguruan traktzio-zeregin nabarmena betetzen duten Nafarroako udalerrriak, herritar guztien bizi-kalitatea atxiki eta hobetzeko eta lurralde-desorekak murrizteko.





TAI-Trakzio Ahalmenaren Indizearen arabera banatzen da, zeina kalkulatu baita udalerriaren faktore hauek kontuan hartuta: udalez gaindiko zerbitzu-emaitegatik edo ekipamenduengatik daukan zentraltasuna; erakargarritasuna eta lehiakortasuna, zerbitzuen mailagatik eta jarduerak erakartzeko eta enplegua sortzeko ahalmenagatik; lurraldearen egituraketa, eta harremanak sortzeko ahalmena.

TAIaz gain, funts honen banaketan kontuan hartzen da udalerriarentzat ezarritako kategoriaren koefizientea (erregioz gaindikoa, erregiokoa, erregioz behekoa eta eskualdekoa) eta biztanleria.

Lurralde-kohesiorako funtsak 2023rako izan zuen zuzkidura 17,85 milioikoa izan zen, zeina aipatu irizpideen arabera identifikaturiko 29 trakzio-udalerrien artean banatu baitzen.

Hogeita bederatzi udalerririk horietatik, zortziren despopulazate-arriskua 1etik (muturreko arriskua) 5era (gainbehera moderatuan) bitartekoa da, eta 2023an honako zenbaterako hauek kobratu zituzten lurralde-kohesiorako funtsetik:

Udalerria	Biztanleria (2022)	LKF	Despopulazate-arriskuaren mota
Izaba	410	15699	1
Otsagabia	495	15699	1
Auritz	230	15699	2
Los Arcos	1.139	15699	3
Irunberri	1.297	15699	3
Baztan	7851	226904	3
Leitza	3029	18006	5
Cortes	3.184	15699	5

Nafarroako Toki Inbertsioen Plana

Toki erakundeek Nafarroako tributueta parte hartze duten funtsa, kapital-transferentzien partean, Toki Inbertsioen Planen bitartez banatzen da.

TIParen osagaietako bat da determinazio libreko programa, toki-entitateak erabakitzen dituen inbertsioak finantzatzeko. Determinazio libreko funtsak Nafarroako udalerririk guztien artean banatzen dira, haien populazioaren eta herriguneeen sakabanaketa geografikoa aintzat hartuz.





Biztanleriaren araberako banaketarako, zenbateko finko bat ezartzen da biztanleria-tarte bakoitzeko, zeina ez baita biztanleriarekiko proportzioan handitzen; berriz, udalerrri txikiek biztanleko kopuru handiagoa jasotzen dute populazio handiagoko udalerrriek baino, honako koadroan azaltzen den bezala:

Populazio tartea	Udalerrri bakoitzeko zenbatekoa, 2023. urtea
99ra bitartean	10.930
100dik 499 ra bitartean	19087
500etik 999ra bitartean	32710
1.000tik 1.999ra bitartean	38174
2.000tik 2.999ra bitartean	43639
3.000tik 4.999ra bitartean	49104
5.000tik 9.999ra bitartean	57262
10.000tik 29.999ra bitartean	72310
30.000tik 199.999ra bitartean	103673
199.999 baino gehiago	176933

2023ko ekitaldian, determinazio libreko programak 9,92 milioiko zuzkidura zeukan.

1.4 Despopulatzearen aurkako beste neurri batzuk

Aztertu dugu ea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak despopulatzearen aurkako borrokaren alorrean hartu dituzten neurriak lagungarri izan ote diren problema hori samurtzeko.

1.4.1. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Next Generation funtsekin finantzatzen diren dirulaguntzak eman ditu, despopulatzearen erronka demografikoarekin zerikusia duten SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko programa batzuei dagozkie.

EEbP 5000 programa

691/2021 Errege Dekretuak arautzen ditu erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinrentzako Energia-birgaikuntzarako Programako (EEbP) dirulaguntzak. Programa horretan sarturik daude 5.000 biztanlera bitarteko udalerrriak eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrri ez-urbanoak, zeinetan populazio-entitate berezi guztiak 5.000 biztanlera artekoak baitira.





Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako Departamentuak Next Generation funtsetako 8,62 milioi jaso zituen, EEbP programari dagozkionak.

Departamentuari emandako diru-sarreraren ehuneko 3,6 (310.140 euro), 691/2021 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, departamentuaren kostuak finantzatzera bideratzen dira; eta gainerakoa, 8,30 milioi, dirulaguntzak emanez exekutatzen dira.

2023ko abenduaren 31n, EEbP 5000 Programari dagozkion diru-sarreraren eta gastuen exekuzioa honako hau zen:

	2021	2022	2023	Guztira
Aitortutako eskubideak	1707500	0	6907500	8615000
Gastu baimendua	0	0	8304860	8304860
Gastu konprometitua	0	0	4524064	4524064
Betebehar onartuak	0	0	0	0

2023ko abenduaren 31n, emandako funts guztiak jaso zituen departamentuak: 8,62 milioi.

Gastuari dagokionez, 2021ean EEbP 5000 Programako dirulaguntzetarako deialdi bat onetsi zen, eta 1,71 milioiko gastua baimendu zen. 2022ko abenduaren 27ko eta 2023ko urriaren 27ko ebazpenen bidez, aldatu egin ziren aipatu deialdiaren oinarri arautzaileak, eta gastu baimendua handitu egin zen 1.584.560 eta 5.012.800 euroan, hurrenez hurren. 2023ko abenduaren 31n, konprometituta dago gastu baimenduaren ehuneko 54. Baimenak aurkezteko epea amaitzen da 691/2021 Errege Dekretuari jarraikiz programaren indarraldia amaitzen den egunean, zeina 2024ko uztailaren 31 izanen baita, non eta lehenago ez bada agortu aurrekontu eskuragarria.

Eraikin Publikoak Birgaitzeari Bultzada Emateko Programa (EPBBEP)

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak Next Generation EB funtsetatik 480 milioi helarazi dizkie autonomia-erkidegoei, Ceutari eta Melillari, populazio-irizpideei heldurik, eraikin publikoen birgaikuntza ja-sangarria indartzeko, 2021eko maiatzaren 26an egin zen Etxebizitzari, Hirigin-tzari eta Lurzoruari buruzko Konferentzia Sektorialean onetsi zen bezala.

2021eko abenduaren 30ean hitzarmena sinatu zen Garraioetako, Mugikortasu-neko eta Hiri Agendako Ministerioaren eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizi-tzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, EP-BBEP exekutatzeko.

Programa horretatik departamentuak exekutatzen dituen erronka demografi-koari loturiko jarduketan artean dago Ascunce Etxea deritzon Pirinioetako erai-kina birgaitzea, horri erabilera soziokulturala eta/edo komertziala emateko.





Obraren balio zenbatetsia 700.067 eurokoa da. Inbertsioa finantzatuko da Next Generation EB funtsetako 445.276 euroekin eta Foru Administrazioaren funtsetako 254.791 euroekin.

2023ko abenduan esleitu ziren birgaikuntza-proiektua eta obra-zuzendaritza. Obra ez dago lizitatuta. Obra exekutatzeko epea 2024ko irailean amaituko da.

Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Plana

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariaren abenduaren 2ko 46/2021 Foru Aginduaren bidez hitzarmen bat onetsi zen, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomiko-rako Planaren parte gisa ekintzailatza eta mikroenpresak sustatzeko lurralde-proiektu bat garatzeko. Helburu du populazio-atzerakada eta -zahartzearen prozesua geraraztea eta eskualde horren biziberritzea hauspotzea.

2021ean, departamentuak Next Generation funtsetako hiru milioi jaso zituen, eta horiekin 2,69 milioiko guztizkoa egiten duten dirulaguntzak eman zituen, honako sei digitalizazio-proiektu hauek eta enpresa-ekintzailatza bultzatzeko eta horretan inbertitzeko programak finantzatzeko:

Proiektua	Emandako dirulaguntza 2022	Emandako dirulaguntza 2023
Luzaideko Udala digitalizatzea	100000	
Erronkari Ibarreko Batzarra digitalizatzea	338002	
Erroibarko Udala digitalizatzea	90000	
Aezkoa Ibarreko Batzarra digitalizatzea		300000
Nabaskozeko Udala digitalizatzea		30000
Zaraitzu Ibarreko Batzarra digitalizatzea		120000
Enpresei bultzada emateko programak	600000	702774
Enpresentzako inbertsio-programak	268329	140779
Guztira	1396331	1293553

1.4.2 Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departametu

Aztertu ditugu departamentu honek eginiko urratsak banda zabaleko zerbitzuak ezarri eta koordinatzeko; hots, oro har abiadura handiko komunikazio elektronikoko gisa ulertzen diren horiek. Sarbide-abiaduraren arabera, oinarrizko banda zabal gisa jotzen da segundoko bi megabit (Mbps) edo gehiagoko abiadurakoa; banda zabal laster gisa, 30 Mbps edo gehiagokoa; eta banda zabal ultralaster gisa, 100 Mbps baino gehiagokoa.

Nafarroako Gobernuak 2017ko azaroaren 22an onetsi zuen Banda Zabala I. Plan Zuzendaria. Plan horren arabera, Nafarroako herri guztiek 2021ean izanen zuten banda zabaleko sareetarako 30 Mbps-ko gutxienezko konexioa. Aurreikusitako inbertsioak 54,25 milioikoak ziren 2017tik 2021era bitarteko aldirian: inbertsio publikoko 31,35 milioi gehi sektore pribatuaren 22,9.





2021-2024 eperako Banda Zabalerako II. Planak (II. BZP) jarraipena ematen dio I. Planetik eginiko lanari, eta xedetzat ipintzen du 2024an Nafarroako biztanle guztiek sarbidea izan dezatela gutxienez ere 30 Mbps-ko banda zabaleko sareetara, 2030 Nafarroako Estrategia Digitalak ezartzen duenari jarraituz. Asmotan hartzen du banda zabalerako irispideari dagokionez lurraldeen artean da goen arrakala ezabatzea.

Landa-eskualderik txikienetan ipintzen du arreta. Helburua da nafar biztanleen ehuneko 95ek, ikastetxe publikoek eta osasun-etxeek 100 Mbps-ko gutxieneko estaldura izan dezatela.

II. BAZPko inbertsioak 2021etik 2024rako epean guztira 17,14 milioikoak izatea aurreikusten da, horietatik 2,95 milioi ekarpen pribatukoak izanik. Hona hemen haien xehakapena ekitaldika:

	2021	2022	2023	2024	Guztira
Ekarpen publikoa	4432000	3668000	3255000	2840000	14195000
Ekarpen pribatua	880000	845000	610000	610000	2945000
Guztira	5312000	4513000	3865000	3450000	17140000

Inbertsioak denboran geroratzen dira araudiak haien exekuziorako ezartzen dituen betekizunen ondorioz, besteak beste.

Departamentuak Nasertic sozietate publikoari eginiko enkarguen bitartez exekutatu zituen Plan Zuzendariko jarduketak. Aipatu sozietateak 18,85 milioi fakturatu zituen 2017-2022 epean. Hona urtekako xehakapena:

2017	2018	2019	2020	2021	2022	Guztira
2509922	1466342	1020493	1624450	2250156	791247	18847090

Banda zabaleko beste jarduketa batzuk

2017-2019 epeko TIP-Toki Inbertsioen Planak inbertsioak barne hartzen zituen, belaunaldi berriko banda zabaleko sarbide-sareen hedapenerako azpiegiturretara bideratuak.





TIP horren arabera, 2018-2022 epean 3,38 milioiko banda zabalerako dirulaguntzak onetsi ziren honako 19 toki-entitate hauentzat:

Toki-entitatea	Onetsitako dirulaguntza (2018-2022)
Jaurrietako Udala	593166
Zarrakazteluko Udala	452194
Arroizko Udala	357172
Bargotako Udala	306822
Antzingo Udala	255510
Obanosko Udala	251.252
Otsagabiko Udala	229295
Ultzamako Udala	203.099
Calibus, Zerbitzu Administrazioen Elkarte	159503
Orotz-Beteluko Udala	148358
Abartzuzako Udala	138.644
Espartzako Udala	85706
Leitzako Udala	46126
Uharteko Udala	40774
Castejongo Udala	27.012
Los Arcosko Udala	26.919
Aresoko Udala	21773
Lekunberriko Udala	21.108
Eloko Udala	17714
Guztira	3.382.147

2022tik 2028ra bitarteko ekitaldietarako TIPEan ez da jasotzen inolako dirulaguntzarik udalerrri bateko biztanleria-gune guztietara zuntz optikoa eramateko behar diren inbertsioak finantzatzeko.

UNICO-Banda zabalaren plana

Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programa (UNICO) da SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europako funtsekin finantzaturiko ekintza bat. Funtz horiek helaraziko dira zenbait deialdiren bidez, banda zabal ultra lasterrerrako sarbidearen eta 5Gren hedapenaren unibertsalizazioa erraztekoak.

UNICO-Banda Zabala programak ehuneko 80raino finantzatzen ditu operadoreak, abiadura oso handiaren estal-eremua lurraldearen ehuneko 100era hedatzeko eta, batez ere, eskualderik landatarrenak, urrunenak edo barreiatuenak direnetan kokaturiko biztanleengana, halatan gizarte-, ekonomia- eta lurralde-kohesioa sustatu eta, horrenbestez, biztanleen ongizatea eta bizi-kalitatea areagotze aldera.





Nafarroan esleipen-hartzaile den ADAMO operadoreak EB-Next Generation funtsetatik finantzaketa lortuz egiten du banda zabalaren hedapena, honako egutegi honen arabera:

UNICO-banda zabala	Zenbatekoa	Amaiera
2021	1293314	2024/05/31
2022	12059753	2024/12/31
2023	1273438	2025/12/31
Guztira	14626505	

Gurutzatu egin ditugu sarbide-abiadura 0 duten udalerriei buruzko informazioa eta daukaten despopulazte-arriskua, Lurralde Kohesiorako Departamentuak egindako arrisku-maparen arabera. 2023ko abenduan, 31 udalerrik 0ko abiadura zeukaten, horietatik 24k despopulazte-arriskua izanda; eta, horietatik, 16 daude muturreko arriskukotzat sailkatuta.

2023ko abenduan, 200 udalerrik 300 mbps-ko gehieneko abiadura zeukaten, eta horietatik 54k muturrekoa edo bizia zeukaten despopulazte-arriskua.





1. eranskina

Nafarroako banda zabalari buruzko adierazleak, 2016-2020

Adierazleak	2016ko balioa	2020ko balioa
NLEko azpi-eskualde bakoitzean egituraketa-mailarik handienekoa den biziguneak konexio-puntu bat izanen du [banaketa-sare batera (backhaul)], NGA \geq 100 Mbps sareetarako konexiorako modukoa, operadore guztiei irekia. (bete egiten den NLE azpi-eskualdeen %an neurtua).	% 23	92,5%
NLEn definituriko azpi-eskualde bakoitzeko biztanleriaren % 20k banda zabal ultralasterren estaldura izanen du (\geq 100Mbps), horrela lagundurik zuntz optikoaren lortza Nafarroan hedatzen (bete egiten den NLE azpi-eskualdeen %an neurtua).	% 18	% 85
Jarduera ekonomikoko arlo guztiek konexio-puntu bat izanen dute [banaketa-sare batera (backhaul)], NGA \geq 100 Mbps sareetarako konexiorako modukoa, operadore guztiei irekia.	% 53	82,4%
Lortzea populazioaren % 85ek \geq 100Mbps sarbide-sareen estaldura izatea.	69,2%	90,4%
Lortzea 1.000 biztanle baino gehiagoko herrietan dauden biztanleen % 100ek eskuragarri izan dezatela banda zabal ultralasterreko (\geq 100 Mbps) sarbide-sareen estaldura.	78,7%	99,8%
Lortzea 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan dauden biztanleen % 30ek eskuragarri izan dezatela banda zabal ultralasterreko (\geq 100 Mbps) sarbide-sareen estaldura.	% 0,2	% 33,2
(\geq 100 Mbps)		
Lortzea 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan dauden biztanleen % 100ek eskuragarri izan dezatela banda zabal lasterreko (\geq 30 Mbps) sarbide-sareen estaldura.	% 10,1	86,61
Nafarroako Gobernuarentzat interes estrategikodunak diren bere egoitzen % 100ek zuntz optikozko konexioa izanen dute Nafarroako Gobernuaren sarera.	% 33,3	% 97,1
Nafarroako Gobernuaren egoitzen % 100ek gutxienez ere 30 Mbps-ko konektibitatea izanen dute.	% 33,9	% 71,3
Sare publikoko ikastetxeen % 100ek gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea izanen dute	% 28,0	% 79,5
Sare publikoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeen % 100ek gutxienez ere 300 Mbps simetrikoko konektibitatea izanen dute.	% 35,9	% 71,8
Oinarrizko Osasun Laguntzako sare publikoko Oinarrizko Osasun Barrutiko buru diren osasun-etxe guztiek, kontsultategi nagusiek eta laguntza jarraituko osasun-etxeek gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea izanen dute.	40,3%	86,4%
Jarduera ekonomikoko eremuetan (industrialdeetan eta parke teknologikoetan) kokatuta dauden enpresen % 100ek banda zabal lasterreko (\geq 30 Mbps) sarbide-sareetarako konektibitatea izanen dute.	% 66	% 84
Jarduera ekonomikoko eremuetan (industrialdeetan eta enpresa-parkeetan) kokatuta dauden enpresen % 80k banda zabal ultralasterreko (\geq 100 Mbps) sarbide-sareetarako konektibitatea izanen dute.	% 40,5	% 82,6
Zentro teknologikoen % 100ek banda zabal ultralasterreko (\geq 100 Mbps simetriko) sarbide-sareetarako konektibitatea izanen dute.	% 72	% 72





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Kontuen Ganberarengandik behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso delarik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA) despopulaztearen aurka hartutako neurriei buruzkoa, eta Zuzendaritza Nagusi honek interesgarri ez ezik komenigarri ere irizten dion arren aipatu txostenean jasotzen diren gomendioak praktikan jartzeari, ñabardura batzuk adierazi beharrean gaude, gai horretan daukagun egoera ulertzen lagunduko dutenak:

- IV. puntuan (Konklusioak eta gomendioak, IV.1 NFKAko gobernantza-sistema, 19. orrialdea), honakoa esaten da:

- *Ez da despopulaztearen aurkako foru legerik onetsi, problema horri heldu eta konpontzen laguntzeko neurri ekonomiko, fiskal, administratibo eta arautzailerik ezarri duenik eta horretarako politika publikoen onespenean eta ezarpenari bultzada emanen dionik.*

Horri buruz, behin-behineko txostenak berak, duen gehigarrian, 31. orrialdean, honako hau dio:

"Nafarroaren despopulazioaren aurka borrokatzeko 2023ko apirilean onetsitako estrategian oinarritzko eta lehentasunezko proiektu gisa proposatzen da Despopulaztearen aurkako Foru Legea presatzea, estrategiaren oinarriak finkatzearen.

Nafarroako Gobernuaren 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan jaso da ezen, behin despopulaztearen aurkako estrategia onetsita, eta horrexetan oinarrituta, urtebeteko epean Gobernuak Despopulaztearen aurkako Foru Lege bat aurkeztuko duela, zeinak barnebiduko baititu landa-eremuko berme-mekanismo bat, aurrera eramandako politika publikoak neurtzeko adierazleak eta Lurralde Egituraketarako Funts (LEF) deritzon berariazko funts bat, Nafarroako Gobernuaren departamentu batean ala bestean kokatzen zailak diren ekimen transbertsalen garapenerakoa".

Eta, hain zuzen ere, horrexetan dihardu lehenespenez Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak.

Horretarako, atariko dokumentu bat prestatu da aurretiazko kontsultetarako oinarri gisa erabiltzeko, eta "Bultzatalde" deitu zaion lantalde bat eratu da, zeinaren kide baitira despopulaztearen aurkako borrokan zeresana duten zuzendaritza orokorren ordezkariak, beren ikusmoldea erants diezaioten prozesuari. Lehenbiziko bilera joan den apirilaren 15ean egin zen. Atariko dokumentua adostu ondoren, dokumentu hori lurraldeko zenbait eragileri helaraziko zaie, hala nola Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari edo Toki-ekintzako Taldeei besteak beste, eztabaidatua izateko eta ekarpenak egin ditzaten. Hortik aurrera, Gobernu Irekian aurretiazko kontsultara jarriko da, eta Foru Lege aurreproiektua prestatzeko prozesuari ekinen zaio.

Halaber ohartarazi behar da ezen 2024rako urteroko arau-planak (Nafarroako Gobernuaren 2023ko abenduaren 13ko Erabakiaren bidez onetsia) aurreikusitako duela Lurralde Kohesiorako eta Lurraldearen Egituraketarako Foru Legearen onespenean.

- Orrialde bereko atal berean, txostenak dio:

- *2023ko apirilaren 26an onetsi zen Nafarroaren despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategia (NDABE), zeinean urrats eta proiektuak planifikatzen baitira, despopulaztearen problematikari transbertsalki eta multzoan heltzekoak.*

*Estrategia hori plangintza operatiboko honako bi tresna hauetan zehaztu behar da: Urte Anitzeko Plana eta Urteroko Plan Operatiboa. Horiek, ezartzen denaren kontra, **2023an ez ziren egin.***

Ezarri hala ezartzen zuen estrategiak, baina aurreikuspen hura nekez betetzeko ez baizik bete ezinena zen.





Estrategia horrek zehaztapen-sorta bat ezartzen du, onetsia izan zen urtean bertan bete beharrekoak. Hala, honakoa dio:

"Praktikan, Urte Anitzeko Plana 2023an egin beharko da, halako moldez non hurrengo lau urteetan aurrera eraman beharreko proiektuen egutegia ezarriko baita. Plana egiteko, lan operatiboko saiok ezarri beharko dira, estrategiaren arlo bakoitzeko jarduketa-ardatzak oinarri harturik. Bulego Teknikoa izanen da Urte Anitzeko Plana prestatzearen arduradun, eta hori elkarlanean eta bateratasunez egin beharko da zuzendaritza nagusiekin eta jarduketa-ardatz bakoitzean ardurak dauzkaten erakundeekin.

Plangintza-tresnarik berariazkoena izanen dira Despopulatzearen aurka borrokatzeko Urteroko Plan Operatiboak (UPO).

UPOa Bulego Teknikoak eginen du, elkarlanean strategiaren ardatzei eta horiek Urte Anitzeko Planean duten mamitzeari dagokienez eskudun diren zuzendaritza nagusiekin.

Urteroko Plan Operatiboa aurrekontuen onespena baino lehenago egin beharko da, eta jardun hori paraleloan egin beharko da aurrekontuak prestatze aldera zuzendaritza nagusiek egiten duten lanarekin.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ezen Urteroko lehen Plan Operatiboa aldi berean eginen dela Urte Anitzeko Planarekin batera"

Bada, Estrategia onetsi zen foru-hauteskundeak egin aurreko unean bertan. 2023ko ekitaldirako aurrekontua onetsita zegoen jadanik, eta Bulego Teknikoa edo zeregin baliokideko organoa eratu gabe zegoen. Bestalde, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuaren bitartez eratu zen. Beraz, ez zegoen eskueran bitartekorik, ekonomiko, material nahiz langileriazkorik, Estrategian jasotako zehaztapenak gauzatzeko.

Une honetan, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak prestatuta dauka Urte Anitzeko Plana, eta NASUVINSA-LURSAREarekin enkargua izapidetzen ari da, Urteroko Lehen Plan Operatiboa prestatzeko. 2024aren lehen hiruhilekoan bilerak egin dira despopulatzearen aurkako borroka-ren gai hau ukitzen duten eskumenak dauzkaten Nafarroako Gobernuaren zuzendaritza nagusi guztiekin, eta Urte Anitzeko Plana egiteko behar den informazioa bildu da. Lan hori 2024ko apirilean burutu da.

- Txostenaren atal berean, 20. orrialdean, Ganberak dio:

•NDABEa 2023ko apirilean onetsi zen, eta honako organo hauetan oinarrituriko gobernantza-eredu berria ezartzen du:

- Despopulazioaren Aurkako borrokarako Departamentuarteko Batzordea, strategiaren koordinazi-orako eta jarraipena egiteko.

- Despopulatzearen Aurkako borrokarako Talde Eragilea

- Bulego Teknikoa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa.

2023ko abenduaren 31n, eratu gabe zeuden aipaturiko organo guztiak, bai eta bulego teknikoa ere.

(...)

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoak despopulatzearen aurkako berariazko unitate organikoak dauzka, eta horiek, NDABEk ezartzen dituen gobernantza-organoeekin batera, egokiak dira koordinatuta eta transbertsalki bultzada eman eta heltzeko despopulatzearen aurkako borrokari, baldin behar adina langile badituzte eta NDABEn ezartzen diren organoak eratzten eta abian jartzen badira.





Alabaina, ez da despopulaztearen aurka borrokatzeko foru legerik onetsi. NDABEn ezarritako plan-gintza-tresna operatiboak ez dira onetsi, ez eta, horrenbestez, ezarri ere, eta halaber ez dira eratu estrategia horretan ezarritako organo eta unitateak: departamentuarterko batzordea, despopulaztearen aurkako talde eragilea eta bulego teknikoa.

Despopulaztearen aurkako Borrokarako Departamentuarterko Batzordeari dagokionez, adierazi beharra dago eratu zela Nafarroako Gobernuaren 2019ko azaroaren 13ko Erabakiaren bidez, eginkizun hauekin:

- a) Erreferentzia-dokumentu bat prestatzea, non zehaztuko baitira erronka demografikoaren eta despopulaztearen alorreko helburuak eta jarduketa-ardatz estrategiko nagusiak. (...)
- b) Despopulaztearen aurkako borrokaren alorreko ekimen zehatzak koordinatu, adostu eta bultzatzea.
- c) Ekimen horietarako beharrezkoak diren neurri guztiak prestatu eta, kasua bada, gora igortzea.
- d) Erreferentzia-dokumentuan jasotako helburu eta neurriekin zerikusia duen beste edozein.

Despopulaztearen aurkako Borrokarako Batzordeak bere sorreraz geroztik jardun zuen a) atalean aipaturiko erreferentzia-dokumentu baten prestaketan, eta lan horren emaitza izan zen Nafarroaren Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategia deitu zitzaion dokumentu bat, zeina onetsi baitzen Gobernuak 2023ko apirilaren 26an hartutako Erabakiaren bitartez.

Nafarroaren Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategiak erdietsi nahi duen helburu orokorra da "Nafarroako eskualde despopulatueta biztanleriari eutsi eta hura biziberritzeko baldintza sozialak, ekonomikoak eta lurralde-izaerakoak ezartzea".

Bere helburua erdiesteko, Estrategiak berak gobernantza-sistema bat aurreikusten du, bere koordinazio eta garapena bi organoren bitartez bermatuko dituena:

Nafarroaren Despopulazioaren aurka borrokatzeko Departamentuarterko Batzordea eta Nafarroako Despopulazioaren aurkako Borrokarako Talde Eragilea.

Horrela, bada, estrategia garatzeak behartzen du Despopulazioaren aurkako borrokarako Departamentuarterko Batzordearen funtzioak indartu eta ugaritzera, halako moldez non erabakitze-eta oneste-funtzioak ere esleituko baitzaizkio. Horrela, eta aipatze hutsagatik, Estrategiak berak honako funtzioak esleitzen dizkio Batzordeari:

Estrategia onestea, despopulaztearen aurkako borrokarako mugarte transbertsal bezala.

Despopulazioaren aurkako borrokarako Urte Anitzeko Plana onestea.

Aurrekoaren ondoriozko urteroko plan operatiboak onestea.

Estrategiaren koordinazio eta segimendu uneorokoak.

Ardurapean ipintzen zaizkion eginkizun berriak ikusirik, beharrezkoa gertatzen da arau baten bitartez zehaztea haren osaera, antolaera eta organo kideaniztun gisa duen funtzionamendua, ziurtasun juridiko eta eraginkortasun handiagoak izan ditzan aurrera eramaten duen jardueran, eta aipatu araudian xedatua beterik. Horregatik, une honetan izapidetua izaten ari da Nafarroaren Despopulazioaren aurkako borrokarako Departamentuarterko Batzordea arautuko duen foru dekretuaren prestatze-prozedura abiatzeko foru agindua.

Horrekin bat, Talde Eragilea eratuko da.

Azkenik, eta Bulego Teknikoaz denaz bezainbatean, NDABEan proposatzen da, baike, Bulego Tekniko bat eratzea, honakoez arduratuko dena:

- Estrategiaren segimendurako eta ebaluaziorako adierazleak kalkulatzeko.





- Urte Anitzeko Planaren eta Urteroko Plan Operatiboen prestaketaren zuzendaritza.
- Proiektuak taxutu eta zuzendaritzapean izatea, zerkusia dutenak despopulatzearen aurkako borrokari buruzko ezagutzaren ekoizpenarekin, elkarlanarekin eta berrikuntzarekin. Estrategiak horretarako esparru berriazkorik zehazten ez duen arren, Bulego Teknikoak berebera izanen duen zeregina da, estrategia garatzeaz daukan arduraren barrenean.
- Estrategia dela-eta Departamentuarterko Batzordeak eta Talde Eragileak egiten dituzten bilkurak prestatzea eta horietarako dokumentazioa apailatzea.
- Talde Eragilearen Idazkaritza Teknikoa.
- Estrategiaren segimendurako urteroko txostena eta strategiaren ebaluaziorako bi urtean behingo txostenak prestatzea.
- Batzordearen, Talde Eragilearen eta abarren bilerak prestatzea. Azken batean, Bulego Teknikoa da strategiaren garapenerako lanabes operatibo nagusia.

Bulego Teknikoa, Estrategiak berak dioenez, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren zuzeneko menpekoa izanen da, edo Nafarroako Gobernuaren esparruan despopulatzeko eskumenak ardurapean dituen dena delakoarena.

Bada, azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baita Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa den Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuari esleitzen dizkio Estrategian Bulego honi esleitzen zaizkion funtzioak; eta, zerbitzu horren barrenean, gehienbat Anlisi eta Plangintza Estrategikorako eta Politika Publikoen Koordinaziorako Atalari.

Azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuak –zeinaren bidez ezartzen baita Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa– Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuari esleituriko eginkizun dira arau-esparru bat garatzea, horrekin bultzada emateko lurralde-kohesioari, erronka demografikoari eta despopulatzearen aurkako borrokari; lurralde-kohesiorako, erronka demografikorako eta despopulatzearen aurkako borrokarako giltzarri diren politika publikoak aztertu eta planifikatzea; Nafarroaren Despopulazioaren aurkako Borrokarako Estrategiatik eratorritako proiektuen garapena eta kudeaketa; gainbehera demografikoko eskualdeen beharriaz zane eta lurralde-errealitateei buruzko azterlan eta ikerketak; eta erronka demografikoaren nahiz lurralde-egituraketaren alorreko politika publikoak Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuekin koordinatzea. Eta, zehazki, Anlisi eta Plangintza Estrategikorako eta Politika Publikoen Koordinaziorako Atalaren esparru material eta funtzionalari berriaz erreserbatzen dizkio honako hauek:

- a) Lege- eta erregelamendu-proposamenak egitea despopulatzearen eta erronka demografikoaren alorrean, koordinatuta despopulatzearen aurkako borrokan eragiten duten politikak egiten dituzten Nafarroako Gobernuaren departamentuekin.
- b) Lurralde-egituraketako eta populazioa landa-ingurunean ezartzeko politika publikoetan elkarlan publiko-pribatua egon dadin bultzatzea.
- c) Nafarroaren Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategiaren garapenean Urte Anitzeko Plana eta Urteroko Plan Operatiboak prestatzearen gaineko koordinazioa.
- d) Proiektu zuzendariak zehaztu eta planifikatzea Nafarroaren Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategia garatzeko.
- e) Azterlanak egitea herritarren eta enpresen beharrei buruz edo sektoreartekotasun-gabeziei buruz, despopulatzeko arriskuan dauden udalerrietan lurralde-ikuspegi osoagoa edukitzeko.





- f) Zuzendaritza nagusiaren gainerako unitateekin elkarlanean aritzea azterlanak eta txostenak prestatzeko.
- g) Bere eskumenen esparruaren gaineko azterlanak hedatzea.
- h) Estrategiatik eratorritako proiektu zuzendarien ebaluazioa eta horien segimendua egitea.
- i) Parte-hartze prozesuak kudeatzea despopulazioaren aurkako borrokaren eta erronka demografikoaren alorrean egin beharreko jarduketetan ari diren erakunde eta eragile guztiekin batera.
- j) Pirinioen Plana bultzatu eta koordinatzea Lursarea-Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren eta lurralde-agenteen laguntzarekin.
- k) Pirinioen Planeko eredua eta kobernanta-sistema ezartzea despopulazioak jotako beste lurralde batzuetan.
- l) Despopulazioaren aurkako borrokarako Departamentuarterko Batzordearen Idazkaritzaren eginkizunak betetzea, Estrategiaren koordinazioarako eta segimendurako organo gisa.
- m) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten beste batzuk, edo bere jardueraren eremuan ardurapean ipintzen zaizkionak.

Halatan, une honetan zuzendaritza nagusi hau enkargu bat ari da NASUVINSArekin izapidetzen, Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategiaren garapenean sostengu-lanak egitekoa eta Estrategiak Bulegoari esleitu eta egiturari buruzko foru dekretuak aipatu den atalean kokatuak diren eginkizun guztiak betetzeko.

Enkargu honek ituan dituen helburuak dira, Nafarroako Despopulazioaren aurkako borrokarako Estrategia garaturik, estrategiak berak Bulegoari aipatu den Atalean kokaturiko organo tekniko bezala esleitzen dizkion eginkizunak betetzea, zeinak gorago zerrendatu baitira, eta, bestalde, despopulazio-alorrean Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuak aurrera eramandako proiektuei sostengu eman eta segimendua egitea.

- **IV. puntuan (Konklusioak eta gomendioak), IV.3 atalean (Lurralde Kohesiorako Departamentuaren neurriak), 26. orrialdean, honakoa esaten da:**

“Laburbilduz, azpimarratzen dugu egin egin direla despopulazioaren aurkako jarduketak horiek, baina ez dela baloratu udalerririk despopulatueta izan duten eragina. Gure iritziz, nahiz eta 2019an Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia Lurralde Kohesiorako Departamentuari atxikita eratu zen, departamentu horrek ez du izan langilerik nahikoa esleituta zeuzkan eginkizunak betetzeko, hala nola proiektu eta ekimenen koordinazio transbertsala eta bultzada, eta erronka demografikoaren eta despopulazioaren aurkako borrokarako neurri aringarrien izapidetzea. Horrela, ez du aitzindaritzarik izan, ez eta parte hartu ere, Pirinioen Plan Estrategikoaren garapenean eta ezarpenean.

Horri buruz, komeni da oroitaraztea ezen, joan den legegintzaldian, Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuak berritasun gisa sartu zuela bere eginkizunen artean despopulazioaren aurkako borrokarako estrategiarekin zerikusia duten neurriak aztertu, proposatu eta izapidetzea, Toki Informazioaren eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Estrategiaren Atala eratu, hori une hartan jadanik izaki Nafarroako Gobernuaren lehentasunezko helburuetako bat, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ardurapean ipinia. Esan daiteke despopulazioaren aurkako borroka bi alderdi edo zutabe izan zituela:

- **Alderdi estrategikoa:** Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ardurapean, aipatu atalaren bidez gauzatu. Horren fruitua izan zen *Despopulazioaren aurkako borrokarako estrategia* bat.





- **Alderdi operatiboa:** Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak aurrera eramana, lurralde-ezarpen handiago baten bitartez; batez ere, *Pirinioen Plana* praktikan jarritz –gai horretarako onetsitako ponentzia parlamentario baten konklusioak eta gidalerroak beretuz-.

Oraingo legegintzaldian, bi alderdi horiek Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian bateratu dira, halako moduz non joan den legegintzaldian Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak betetzen zituen funtzioak orain Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumen-esparru material eta funtzionalari baitagozkio eta Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuak betetzen baititu, zeinari horretarako langileak esleitu baitzaizkio.

Horrela, azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baita Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa, Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuaren alor materialean sartzen du (29. artikulua) "Pirinioetako Plana sustatu eta koordinatzea, Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren eta bertako eragileen laguntzarekin": eta, halaber, "Pirinioetako Planaren eredia eta kobernanta sistema ezartzea Despopulazioak ukitutako beste lurralde esparru batzuetan".

Iruzkin gehiagorik ez izanik NFKA-Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan despopulazioaren aurka harturiko neurriei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenari egin beharrekorik, eta beharrezkoa zaizun orotarako zure eskura jarririk, adeitasunez agurtzen zaitut.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Eskertzen ditugu Lurralde Kohesiorako kontseilariak aurkezturiko alegazioak. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio, zeina behin betiko izatera pasatzen baita, horiek txostenaren edukia aldatzen ez dutelakoan.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua marjinean adierazitako egunean)

